


2018
KOLDO ELEIZALDE
LEHIAKETAK
XXXIII. EDIZIOA



Antolatzailea:



Begarako Udala
Euskara batzordea

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

IPUINA

1. taldea:

Saria: Mif eta Pif banpiroen munduan. Peru Montalvo	7
Saria: Eider eta bere panpina. Irati Leria.....	11
Saria: Peperoni margolaria. Maxim Stoyanov	15

2. taldea:

Saria: Urrezko patatak. Mariñe Sotil	19
Saria: Erreka magikoko misterioa. Uxue Montalvo	23
Saria: Txorixo man. Urko Agirrezabal, Aratz Etxeberria, Eki Mujika.....	27

3. taldea:

Saria: Liburu magikoa. Kalet Heis	31
Saria: Ostadarraren koloreak. Ariane Igartua	39
Saria: Koloretako maleta. June Kalboetxeaga.....	35

4. taldea:

1. saria: Izar berri bat zerura. June Odriozola	43
2. saria: Zuhaitz baten bizitza. Andrea Cachafeiro, Enara Alberdi.....	49
3. saria: Azken hitza. Saioa Garin.....	55

5. taldea:

1. saria: Ardura al dizu? Aitor Regueiro	65
2. saria: Argia, bizitzarako gidaria. Malen Kalboetxeaga.....	77
3. saria: Adiskidetasunaren benetako garrantzia. Amaia Alonso	83

BERTSOA

1. taldea:

Saria: Jangelako janaria. Leire Martin, Miren Moñux.....	91
Saria: Mugikorrean preso. Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak.....	95
Saria: Herrialdeen ametsak. Haizea Arantzabal	103
Saria: Bulling-a. Iñaki Aldazabal	99

2. taldea:

1. saria: Emakumea. Nagore Otadui, Paula Palacios.....	107
---	-----

3. taldea:

1. saria: Guk zergatik ez. Garikoitz Lopez de Munain.....	111
2. saria: Baliza. Nerea Madariaga.....	117

KOMIKIA

1. taldea:

Saria: Bost minutu gehixau!!! Alaitz Olabarrieta	121
Saria: Aho handiko zapua. Oihan Zubiaga.....	123

2. taldea:

1. saria: Adar zorrotzak. Irene Valle	125
2. saria: Arratsalde pasa "lagun artean". Alazne Urkiola	127

3. taldea:

1. saria: Bizia lurretik kanpo. Julen Ibarretxe.....	129
2. saria: Zer gertatzen ari da? Abinet Casquero	135

Ez nekien nola hasi hitzaurre hau eta Koldo Eleizalde nor izan zen gogoratzea pentsatu dut. 1878an Bergaran jaio eta 1923an Bilbon hil zen idazle eta pedagogoa izan zen. Eusko Ikaskuntzako partaide izan zen hasieratik eta Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat. Euskararentzako eredu batu baten alde agertu zen. Era berean, haur euskaldunei eskola euskaraz eman behar zitzaizela aldarrikatzen zuen. Beraz, bete betean asmatu zuen.

Urte asko dira jadanik Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak lehiaketa hau antolatzen duena, XXXIII. edizioa izan da aurtengoa, eta eskola-adinez gorako jendearen parte hartzea txikiagoa izan bada ere, ikastetxeetan nolabaiteko sustapen lana egin denean (bertsoa, komikia...), bai parte hartzea eta bai kalitatea asko hobetu dira. Hemen duzue 2018an sarituak izan diren lanak biltzen dituen liburuxka: ipuinak, bertsoak, komikiak...

Aurten estreinakoz, sari-emate ekitaldia Seminarixoan egin da eta, areto berri honek dituen baldintzek, gure sortzaileek aurkeztu dituzten lanez gozatzeko aukera eman digute. Bertan, saritutako ipuin idatziak irakurri dira, ipuin-kontaketa eta antzerkiak izan dira zuzenean edo bideo bidez, bertsoak kantatu dira... Aurkezle-lana Jarduneko helduen antzerki eskolako bi kidek egin dute. Ekitaldia anitza, aberatsa eta entretenigarria izan da, maila onekoa, horregatik aurrerantzean bertan izango da sari banatze ekitaldia.

Azkenik, zorionak saridunei eta eskerrik beroenak parte hartzaile izan zareten guztioi, zuen laguntzarik gabe ez genuke posible izango Koldo Elizalde gogoratzea. Honen birtutez, lanean jarraitzeko gonbidapena egiten dizuet, gu zuen amets berriak irakurtzeko prest gelditzen gara.

Izaskun Labaien

Euskara batzordeburua

Mif eta Pif
banpiroen munduan

IPUINA



Peru Montalvo
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Mif eta Pif banpiroen munduan

Baziren behin Mif eta Pif izeneko bi lagun. Mif eta Pif txerriak ziren. Mif oso potoloa zen eta Pif, berriz, oso argala. Mifek oso sudur luzea zuen eta Pifek, aldiz, oso sudur motza. Baina, hala ere, lagunak ziren.

Egun batean, basoan sartu ziren. Otsoa ikusi zuten eta korrika hasi ziren. Horrela, komentu batera heldu ziren eta han banpiroak zeuden.

Txirrista batetik banpiroen mundura sartu ziren Mif eta Pif, eta han munstro asko zeuden. Mif eta Pif beldurtu egin ziren.

Han zeudela izozki-denda bat ikusi zuten. Barrura sartu ziren eta jateko zegoen bakarra pertsonen odola zen. Bertan, gitarrista bat ezagutu zuten. Gitarra bat zeukan, hagin oso zorrotzak, kapa bat eta behatz luzeak gitarra ondo jotzeko. Mif eta Pif harrituta gelditu ziren. Mifek eta Pifek bere izena zein zen galdetu zioten eta horrela erantzun zuen: “Jimi”.

Jimik toki guztiak erakutsi zizkien, adibidez, hilerria. Mifek handik nola irteten zen galdetu zuen eta Jimik esan zion:

—Ezin da irten.

Orduan, Mif eta Pif negarrez hasi ziren. Baina Jimik esan zien:

—Bakarrik banpiro bihurtzen baldin bazarete irten ahal izango zarete!

—Bale, banpiro bihurtuko gara —esan zuten Mifek eta Pifek.

Orduan, Jimik haginika egin zien Mifi eta Pifi. Baina, momentu horretan, Mif eta Pif konturatu ziren ez zutela laguna berriro ikusiko. Orduan, Pifek esan zuen:

—Hemen geldituko gara!

Handik aurrera, banpiroen munduan bizi izan ziren Mif eta Pif txerriak.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila banpiroen munduan.

Eider
eta bere panpina

IPUINA



Irati Leria
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Eider eta bere panpina

Bazen behin Eider izeneko neska bat. Panpinak izugarri gustatzen zitzaizkion. Bere panpina Maitagarria deitzen zen. Panpinak zapata dotoreak zituen.

Zapata horiek lamia batek oparitu zizkion baina, ez hori bakarrik, eraztun bitxi bat ere oparitu zion.

Eiderri asko gustatzen zitzaion panpina. Panpina polita bazen ere, arazo larri bat zuen: aldakak mugitu egiten zitzaizkion eta mina hartzen zuen.

Eiderrek ez zekien arazoa nola konpondu eta lamiarengana joan zen. Lamiak usokin hitz egiteko esan zion. Uso bati deitu zion eta txoriak esan zion zilborretik hodi bat sartzeko, horrela, sendatu egingo zela.

Eider korrika joan zen panpina sendatzera. Eiderrek panpina hartu eta tutua sartu zion. Hoditik putz egin zion eta aldakak bere lekura bueltatu ziren. Geroztik, Eider pozik bizi izan zen.

Peperoni
margolaria

IPUINA



Maxim Stoyanov
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Peperoni margolaria



eperoni oso margolari ona zen eta bere amonari asko gustatzen zitzaion ikustea nola margotzen zuen.

Egun batean, etxeko ganbaran, unibertsoa margotzen ari zen Peperoni. Ganbarak leiho txiki bat zuen. Leihotik olatuak ikusten zituen Peperonik.

Bat-batean zerbait distiratsua agertu zen olatuen artean. Peperoni olatuak ikustera joan zen. Hurbildu zenean tarta baten tamainako objektu bat ikusi zuen. Peperoni objektua hartzen saiatu zen baina ezin izan zuen hartu berotasun handia botatzen zuelako. Gainera, oso forma arraroa zuen.

Margolariak ertzaintzari deitu zion. Ertzaintzak ezin zuen hartu objektua. Espaziotik eroritako objektua zela pentsatu zuten. Horregatik, NASARA deitu zuten. NASAkoek laborategira eraman zuten aztertzeko.

NASAkoek objektua aztertu zutenean mezu bat agertu zen barruan. Mezua beste planeta batetik etorri zen. Mezuak honakoa esaten zuen: “Onekiako 1410 planetakoak gara. Gure planetak zuenaren antza du. Zuek botatzen duzuen kaka guztia gure planetara heltzen da. Horrela jarraitzen baduzue zuen planeta inbadituko dugu”.

Urrezko
patatak

IPUINA



Mariñe Sotil
Bigarren taldea Saria

Balentiaga 18

Urrezko patatak

 azen behin baserri batean bizi zen aitaita bat. Baserria oso handia zen eta bera bakarrik bizi zen bertan. Egunero animaliak zaintzen zituen.

Asteburutan, seme-alabek eta ilobek laguntzen zioten ortua lantzen.

Bere iloba Urko oso trebea zen ortua lantzen, eta behin, patatak lantzen zegoela oihukatu zuen:

—AITAITA!!! Etorri azkar aitaita!

Berehala Urkorengana hurbildu zen.

—Zer gertatzen da mutiko?

—Begira aitaita, aitzurra sartu dudanean lur azpian zarata fuerte bat izan da.

—Baina zer izan daiteke?

Hasi ziren biak jo eta ke zuloa egiten eta kutxa zahar bat atera zuten.

—Aitaita zer da hau? galdetu zion Urkok.

—Ez dakit mutiko.

Zabaldu zuten kutxa eta urrezko haziz beteta zegoen.

Ordutik aurrera haziak landatu zituzten eta urrezko patatak atera ziren.

Erreka magikoko
misterioa

IPUINA



Uxue Montalvo
Bigarren taldea Saria

Balentiaga 18

Erreka magikoko misterioa

Bazen behin Aitze izeneko neska alai eta atsegin bat, natura asko maite zuena. Egun hartan, herriko plazan elkartu ziren bera eta bere lagunak zerbaitetan jo-lasteko. Denbora pixka bat pasatu ostean basoa esploratzera joatea erabaki zuten. Basoan bikoteka jarri ziren eta zazpi pertsona zirenez bat bakarrik gelditu zen. Eta bakarrik gelditu zena Aitze izan zen!

Aitze bakarrik eta triste sentitu zen baina aurrera jarraitu zuen eta bera izan zen basoaren bihotzera heltzen lehena. Basoaren bihotzean errekatxo bat zegoen eta egarri zenez ur pixka bat edatera makurtu zen. Makurtu zenean, han inguruan zeuden animalia gehienak berarengana hurbildu ziren, eta ura edatetik jaiki zenean harritu egin zen animalia haiekin guztiekin.

Bat-batean zer bait arraroa sentitu zuen, kalanbrea moduko zer bait. Orduan kon-turatu zen beste herrialde batera bidaiatu zuela, baina ez zekien zein herrialde-tara. Baina, momentu horretan, ikusi zuen hontz bat zetorrela, makila magiko eta mezu ba-tekina. Mezua irakurtzen hasi zen eta honela zioen:

“ONGI ETORRI SORGINEN HERRIALDERA!!!

Kaixo,

Hauek dira zuretzat aukeratu ditugun hontza eta makila magikoa.

Gauza bat: zure makila magikoaz lurra kolpatzen baduzu sorginen eskolarako bidea agertuko zaizu lur-rean adierazita, eta han zure erratza emango dizute eta nola irten eta nola sartu azalduko dizute”.

Orduan, mezuan jartzen zuena egin zuen. Makila magikoaz lurra kolpatu zuen eta gezitxoak agertu zitzaizkion lurrean adierazita. Sorginen eskolara iritsi zenean ongi etorri oso atsegina egin zioten eta, mezuan esan bezala, erratza eman zioten.

Baina, benetako sorgina izateko proba bat jarri zioten, sendabelar batzuk aurkitzea. Egun bat jai ere eman zioten sorginen eskolan, denbora gehiago edukitzeko sendabelarrak bilatzeko.

Egun hartan, sorginen eskolatik irten bezain laster etxera itzuli zen, eta hurrengo egunean belarrak aurkitzera joan zen basora. Kamamila eta menda aurkitu zituen, baina mihura eta negu-txilintxa ez.

Etsitzeko zegoenean bere hontza agertu zen eta haritz batera gidatu zuen. Hontzak makila magikoa zeukan atzaparretan eta Aitzek hartu egin zion makila. Makila magikoaz haritza ukitu eta ate bat zabaldu zen. Eskailera batzuk jaitsi eta zelai batera heldu zen. Zelai hori mihura eta txilintxaz beterik zegoen eta landare bana hartu zituen.

Hurrengo egunean oso pozik joan zen sorginen eskolara eta sorginen eskolan benetako sorgin bezala onartu zuten. Sorginen herrialdean sartzeko eta irteteko hitz magikoak esan zizkioten: “Errekatxo zabaldu zaitez” esan behar zuen bai sartzeko eta bai irteteko.

Hain pozik zebilen, sorginen herrialdetik irten eta plazara bere lagunekin egotera joaten zenean, denek berarekin jolastu nahi zutela. Orain Aitzek sekretu bat eta lagunak zituen eta ez zen gehiago bakarrik sentitu.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila herrixkako plazan eta irten dadila sorginen errekan.

Txorixo man

IPUINA



Urko Agirrezabal, Aratz Etxeberria, Eki Mujika
Bigarren taldea Saria

Balentiaga 18

Txorixo man

Bazen behin ume bat handitan super heroia izan nahi zuena eta txorizoa jaten zuen bakoitzean botereak sortzen zitzaizkiona. Hauek ziren bere botereak: super indarra eta hegan egin ahal izatea.

Egun batean, lagunekin afaltzen zegoela txorizoa jan zuen. Etxera bueltan zihoala bere etxe ondoan istripu bat gertatu zela ikusi zuen, eta umeak istripua eduki zuten pertsonen lagundu zien. Hortik aurrera, *Txorixo man* deitzen hasi ziren lagunak.

Hurrengo egunean, jaiki zenean, egunkaria hartu zuen ate ondotik eta bera agertzen zen egunkarian.

Kalera irten zenean kazetari denak berarengana joan ziren.

—Utzi bakean!!! —esan zuen Txorixo manek—. Pertsona normal bat naiz!!!

Hegan joan zen lagunuen etxera eta kazetari denak helikopteroan bere atzetik joan ziren. Txorixo manek txirrina jo zuen bere lagunuen etxera heldu zenean, eta bere lagunak atea zabaldu zutenean hau galdetu zioten Txorixo mani:

—Zer da iskanbila hori?

—Ba..., kazetariak nirengana datoz.

—Lasai! Hemen salbu zaude. Ez diogu inori atea zabalduko. Sartu!

Txorixo man etxera bueltatu zenean hau esan zion amak:

—Goazen dentistarengana.

Dentistarengana ailegatu zirenean dentistak hau esan zion:

—Haginak txarto dituzu, beraz, aparatua jarri behar dizugu. Ezingo duzu txorizo eta urdaiazpikorik jan.

Orduan, Txorixo man negarrez hasi zen ezin izango zuelako txorizo gehiago jan. Hasserretu egin zen eta aparatua apurtu zuen bere indarrarekin.

Hortik aurrera Txorixo man izaten jarraitu zuen eta bere botereak jendeari laguntzeko erabili zituen.

Liburu magikoa

IPUINA



Kaiet Heis

Hirugarren taldea Saria

Balentiaga 18

Liburu magikoa

Bazen behin irakurtzea asko gustatzen zitzaion neska bat. Edurne izena zuen. Edurne Altzon bizi zen, baina Altzo oso txikia zenez ez zeukan liburutegi bat bera ere. Edurnek Alegira jaitsi behar izaten zuen liburutegiko liburuak hartzeko.

Uztaileko egun batean Alegiko liburutegian Edurnek liburu bat topatu zuen hango liburuaren artean. Altzora ailegatu zenean liburua irakurtzen hasi zen.

Liburuaren izenburua “LIBURU MAGIKOA” zen. Edurnek ohearen azpian lagatzen zuen liburua bere amak ez ikusteko. Gau batean, neska liburua irakurtzen hasi zen eta bigarren orrialdean abenturak hasi ziren.

Bigarren orrialdean “IKUTU” hitza irakur zitekeen. Edurne oso beldurtuta zegoen baina “IKUTU” hitza sakatu zuen eta bat-batean beste mundu batean sartu zen. Mundu horren izena “HARTZ POLITAK” zen eta mundu horretan kolorezko hartzak zeuden: horiak, urdinak, laranja, arrosak, moreak...

Mundu horretan, oso ondo pasatzen zuen hartzekin jolasten, bazkaltzen, marrazkiak egiten... Baina sei orduren ondoren, berriro mundu normalera bueltatzen zen.

Hurrengo egunean beste kapitulu bat irakurri zuen eta orrialde horretan ere “IKUTU” hitza ipintzen zuen. Orduan, Edurnek berriro hitz hori sakatu zuen, eta beste mundu batera joan zen. Oraingo munduak “GOXOKILAND” izena zuen eta bost ordu pasatu zirenean, mundu normalera bueltatu zen.

Edurnek egunero mundu desberdin batera bidaiatzen zuen “EGUZKILANDera”, “MAITASUN MUNDUra”, “AMETSEN MUNDUra”... Mundu guztietan oso ondo pasatzen zuen. Baina, 60. orrialdeko izenburua “ORRIALDE DEBEKATUA” deitzen

zen. Edurnek hurrengo orrialdera pasatu nahi izan zuen baina, nahi barik, “ORRIALDE DEBEKATUKO” “IKUTU” hitza sakatu zuen. Mundu horretara ailegatu zenean oso beldurtuta zegoen, mundu hori guztia suz beteta zegoelako eta munstroak zeudelako. Mundu hori oso nazkagarria eta zatarra zen eta Edurne ezin zen mundu horretatik desagertu. Orduan, negarrez pasa zituen hiru ordu baino gehiago. Lau ordu pasa ondoren, mago bat agertu zen.


Mago horrek Azmentur izena zuen eta Edurneri azaldu zion orrialde hori bere pentsamendu txarrez osatuta zegoela. Orduan, Azmentur magoak esan zion pentsamendu txar horiek bere burutik kentzen lagunduko ziola.

Azmenturrek lehenengo esplikatu zion nongoa zen liburua. Gero, esan zion bere pentsamendu politenak gogoratzeko eta begiak ixteko. Edurnek, orrialde debekatua-
ren erdian jarri, eta bere pentsamendu gogokoenak pentsatu zituen. Pentsamendu txarrak burutik kentzea pentsatu eta kapitulu hori pentsamendu polit bihurtu zen.

Lortu zuten!!! Pentsamendu txarrak kanporatzea lortu zuten!!!

Edurne oso pozik zegoen! Azmentur ere oso pozik zegoen. Hortik aurrera orrialde horrek “KOLORELAND” izena izan zuen, baina Azmentur magoak liburu magiko hori bere herrialdera eraman zuen arazo gehiago ez izateko.

Hurrengo egunean, Edurnek ohetik jaiki eta bere ohe azpian begiratu zuen. Liburu magikoa ez zegoen baina bere pentsamendu gogokoenak bai. Edurnek Azmenturren falta sumatzen zuen, baina inork ez zizkion kendu bere pentsamendu gogokoenak.



Koloretako
maleta

IPUINA

June Kalboetxeaga
Hirugarren taldea Saria

Balentiaga 18

Koloretako maleta

Kaixo, Ane naiz eta hamar urte ditut. Txikitatik izan da nire ametsa munduan zehar bidaiatzea baina inoiz ezin izan dut Euskal Herritik irten nire gurasoek ez dutelako diru askorik. Orain ere hemen nago, nire armairuan gordeta dagoen maleta gorriari begira; nire urtebetetze egunean amonak oparitu zidan eta oraindik ezin izan dut estreinatu.

Maletari begira nagoela nire ama sartu da logelan eta triste ikusi nauenez bidaiatzeko nire ametsak ere erabili ahal ditudala esan dit, eta horrela mundu osoa ezagutu!

Poliki-poliki lo gelditu naiz eta ametsetan hasi naiz. Loiuko aireportuan nago mutil gazte baten eskuetan, baina oraingoan gorria izan ordez zuria naiz eta botikaz beteta nago. Ordu batzuk pasa ondoren beste herrialde batera heldu naizela konturatu naiz, ikusten ditudan pertsonak beltzak direlako eta oso txiroak. Berehala konturatu naiz Afrikan nagoela eta bertakoei laguntzera joan garela eta oso pozik jarri naiz.

Oraingoan, berriz ere aireportuan nagoela konturatu naiz, eta ordu batzuk pasa direnean New Yorkeko etxe orratzak ikusi ditut eta baita “askatasunaren estatua” ere. Oraingoan gorria edo zuria izan beharrean nire kolorea beltza da eta paperez eta diruz beteta nago. New Yorkera heldu eta naraman gizonak alde batetik bestera korrika narama, bileraz bilera eta laster, berriz ere, hegazkinean nagoela konturatu naiz, baina nire barnean diru gehiago daukat.

Segituan, Pariseko Eiffel dorrea ikusi dut eta neskatila polit batek narama Pariseko kaleetatik. Oraingoan, nire kolorea nire gustukoena da, arrosa hain zuzen ere. Nire barnean oso arropa polita daramat, moda modakoa, eta berehala konturatu naiz neskak

modelo lanak egingo dituela, batez ere, pasarela polit hori ikusi dudanean, dena argiz beteta. Jendearen txaloak ere entzun ditut!

Berehala, itsasontzi batean nagoela ohartu naiz eta piratez inguratuta nagoela konturatu naiz. Itsasoko ura ikusteko aukera izan dut eta duen kolorea ikusita Karibe aldean nagoela pentsatu dut. Nire barnean bitxi zoragarriak daude eta baita urrezko txanponak ere. Nire kanpoko itxura oraingoan oso zaharra da eta bustia dago eta orduan ulertu dut itsasoko altxorra naizela.

Berriro ere hegazkinez noala ikusi dut eta oraingoan piramideak ikusi ditut leihotik. Egipton nagoela ikusi dut. Dena harez beteta dago eta bero asko egiten du. Gamelu batean noa eta berehala emakume dotore baten aurrean gelditu gara, Kleopatraren aurrean! Oraingoan ere nire barrua bitxiz beteta dago eta berarentzat izango direla pentsatu dut.

Nire amaren ahotsa entzun dut berriro eta ohe gainean, nire maleta eskuetan dardala, esnatu naiz.

Dena amets bat izan da, baina oso amets polita!

Amak arrazoia duela konturatu naiz eta ametsetan ere munduko toki zoragarriak bisitatu ditzakegula ohartu naiz. Beraz, hemendik aurrera, eta dirua izan arte, ametsen bidez bidaiatuko dut nire koloretako maleta erabilita.

Ostadarren koloreak

IPUINA



Ariane Igartua
Hirugarren taldea Saria

Balentiaga 18

Ostadarraren koloreak

Bazen behin Ostadar bat oso polita. Umeak, beti, bere inguruan jolasean eta kantari ibiltzen ziren.

Ostadarra oso-oso alai egoten zen momentu haietan eta bere koloreek dir-dir egiten zuten ingurueta mendi eta zelaian.

Bat-batean, egunak eta asteak pasa, eta Ostadarraren inguruetan umerik ez, jolasik ez, kanturik ez.

Teknologia berri eta moderno haien erruz umeak ez ziren kalera joaten, etxean pasatzen zituzten egunak “play stationean” jolasten.

Ostadarra bakartasun-sentsazioa sentitzen hasia zen. Triste, hain triste zegoen, hiru kolore itzali zitzaizkion: berdea, morea eta urdina.

Berdeak esperantza eta osasuna adierazten zuen. Moreak alaitasuna eta irribarrea. Azkenik, urdinak arnasketa eta lasaitasuna. Hain goibelduta zegoen, Ostadarrak ezin baitzuen irribarre bat bera ere egin.

Urrutitik ikus zitezkeen hiru koloreak itzalita. Umeak konturatu ziren zerbait arraroa gertatzen zela eta kezkatuta Ostadarrarengana hurbildu ziren.

Ostadarra goibelduta itzaltzen hasia zen. Umeak gerturatzean dir-dir batzuk egin zituen baina, hiru koloreak ez ziren pizten. Umeak pentsakor gelditu ziren, bazekiten aspaldian ez zirela joaten Ostadarraren ondora jolastera. Agian, “play station” eta bestelako teknologiak alde batera utzi, eta Ostadarrari sorpresa bat antolatzeke herriko ume guztiak elkartu beharko zirela erabaki zuten.

Horrela, herriko haurrek festa bat antolatu zuten eta Ostadarraren ingurura hurbildu ziren, eskutik helduta. Ostadarraren azpian umeak abesten hasi ziren, alai eta pozik jolastuz.

Ostadarraren inguruan marrazkiak itsatsi zituzten, bihotz formako eta ostadar formako marrazkiak. Dantza, algara, poza, jolasak, kankak... denetik, eta herriko umeak han, hainbeste maite zuten Ostadarraren alboan.

Ostadarraren hiru koloreak pizten hasi ziren. Hain pozik zegoen, bere zazpi koloreetatik musika eta dena entzuten baitzen.

Umeek, txundituta, ulertu zuten zer zen Ostadarrak nahi zuena: “play station” eta bestelako makina teknologiko haiek baino askoz ere garrantzitsuagoa zela inguruko pertsonekin oraina bizitzea eta disfrutatzea.

Eta, irakurle, badakizu zer? Zuk ere disfrutatu oraina familia eta lagunekin! Ez ahaztu gero, pertsonak ere badugula ostadarra bihotzean!

Izar berri bat

zerura

IPUINA



June Odriozola

Baugarren taldea 1. saria

Balentiaga 18

Izar berri bat zerura

Argazki bat dut begien aurrean. Bi begi irribarretsu, niri begira-begira. Senti-mendu asko datozkit bat-batean burura, tristura gehienbat, pena, amorrua, negargura, baina baita poza ere, ezagutu zaitudalako eta badakidalako ez zaitugula ahantziko. Eta zure begien beltzak iraganera narama.

7 urte nituela hasi zen guztia.

Amak esan zidan ondoko baserri batera bikote bat etorriko zela bizitzera. Egia esan, ez nion jaramonik egin. Ez nuen uste pertsona horien etorrerak eragingo zidanik baina..., zeren oker nengoen!

Udaberriko larunbat bat zen, egun lasai eta epela. Ziburutan atzera eta aurrera nengibilenean gizon bat hurbildu zitzaidan gitarraz. Berarekin batera, ile luzea eta ikatza bezain beltza zuen emakume lirain eta eder bat, irribarretsu. Eta pertsona haiek ezagutzeak nire bizitza guztiz aldatu zuen.

Egun horretatik aurrera zenbat ordu ez ote nituen igaro beraiekin... Hain goxo hartzen ninduten, hain gauza harriharriak erakusten zizkidaten, bazirudien betidanik ezagutzen nituela. Ez dakit..., baina gaur egun naizen pertsona hein batean beraiei esker era bada.

Udaran, egun beroen goxotasunean, mendira joaten ginen edo zakurrekin eta urarekin jolasean aritzen ginen... Naturak eskaintzen duen edozer gauza txiki zoragarri bihurtzen zen beraiekin. San Martzialen arbola landatu genuen eguna ahaztezina zait.

Neguan, aldiz, etxeko sutondoan egoten ginen kontu kontari berotasun goxoari esker lo-kuluxkak eginez.

Eta, zu, nire eredu bihurtu zinen; ez zenuen lan finkorik eta oso gutxirekin bizi zinen, baina behar nuen bakoitzean, beti zenuen denbora nirekin egoteko. Beti adeitsu, beti lagun, beti eskuzabal! Zure eskutik helduta pasiada bat ematea edo beheko suaren inguruan zure ahots eztiak kontatutako ipuin bat entzutea zoragarria zen niretzat eta, behin eta berriz entzutera eramaten ninduen. Lagunekin joaten nintzenean ere, beti hartzen gintuzun pozik, beti zenuen abenturaren bat guri kontatzeko edo gurekin biziitzeko. Zure jantzi berezi eta apaingarri ugariekin ipuinetako maitagarri bat bezala zaitut gogoan. Animaliak maitatzen irakatsi zenidan, naturako bazter eta lore txikiak mirensten, txorien kantak musika doinu zoragarritzat hartzen, landareen sendatzeko gaitasunak ezagutzen...

Zure ahotsa bera melodia bat zen, beti.

Baina egun euritsu batean, sutondora hurbiltzean, zure begiak bustiak sumatu nituen.

—Lasai, sendatuko naiz —esan zenidan.

Ez zenidan esan zer gaixotasun zen zenuena, baina larria edo ez, berdin zitzaidan, ni zure ondoan egongo nintzen.

Egun hartatik aurrera ez zen ezer berdina izan, zure begietako distira hura mantentzen saiatzen zinen nire aurrean baina, halako itzal mehe bat igartzen zen barruan.

Guztia normaltzat hartzen saiatu ginen, zelako ahaleginak egin zenituen ni ezertaz ez konturatzeko, zure indar eta bizipoza erakusteko...

Baina gaitzaren aurkako borroka ez zen erraza. Joan-etorriak klinikara, aurpegi eskasak, gorputz nekatua, eta itxuraz gogorrena, ile erorketa. Eta hala ere, zure irribarrea dena betetzen.

Piztia gaiztoa uxatzeko ospitaletik gertu bizi behar zinela esan zizuten, eta hala al-dendu zinen gure etxetik, laster elkartuko gara eta garaipena ospatuko dugu esanez.

Zenbait alditan etorri zinen bisitan, bazirudien dena ondo zihoala.

Baina, denboralditxo bat zure berririk izan gabe, gaur zure aurpegiarekin egin dut topo egunkarian, sekula ikusi nahiko ez zintudan tokian...

Gasteizen hil zen 48 urte zituela...

Zeinek hil du zure irribarrea?

Nora joan dira zure ametsak?

Zergatik zu, bizipoz hutsa zinen hori?

Lainoak ikustean zure aurpegi irribarretsua ikusten dut, baita larreko lore txikitxo bakoitzean ere.

Gogoan dut batera landatu genuen haritza.

Askotan joaten naiz bizirik jarraitzen duen begiratzera. Eta jarraitzen du, inoiz baino biziago. Neguan galdutako hostoak berreskuratzen ari da udaberriko eguzki izpien laguntzaz. Zu ikusten zaitut islatuta, emakume indartsu bat izan zena eta gaur egun, dagoen lekuan dagoela, oraindik indartsuago dagoena.

Izar berri bat joan da zerura, zure argi berezia bidali gure ingurura.

Zuhaitz baten
bizitza

IPUINA

Andrea Cachafeiro eta Enara Alberdi

Baugarren taldea 2. saria

Balentiaga 18

Zuhaitz baten bizitza

Kaixo, ni Haritz bat naiz, eta Euskal Herriko baso baten bizi naiz. Egunero, ume eta animalia asko etortzen dira nire inguruan jolastera eta oso gustura ibiltzen naiz beraiekin. Katagorrien oso lagun ona naiz, egunero ibiltzen dira nire hosto eta adarretan jolasean. Intsektuak ere asko maite ditut, kilimak egiten dizkidate nire enborrean zehar korrika ibiltzen direnean.

Maitasun handia hartu diot baita, gutxi gorabehera 16 urte izango dituen gazte bati. Egunero etortzen da nire enborraren ondora bere etxeko lanak egiteko lasaitasuna bi-latzera.

Baina, dena ez doakit horren ondo. Guztiok dakizuen bezala bizidun orok du bel-durra eta nire beldur handiena hontzak dira; horregatik pasatzen dut oso gaizki, gauero, animalia begi handi horiek nire adarretan jartzen direnean. Hala ere, oso zo-riontsu naiz, nahiz eta duela aste gutxi batzuk nire bizitza guztiz aldatu zen.

Egun guztiz arrunta zen, inoiz ikusi gabe nuen gizon bat etorri zenean niregana. Oso ondo ikusi ezin nuen arren, nabarmendu nuen bizkarrean gauza bat zeramala. Bat-ba-tean, gauza arraro horrekin kolpeak ematen hasi zen eta min handia egin zidan.

Handik ordu batzuetara, nire sustraiaetik banatu ninduen, kotxe handi batean sartu ninduen. Ez ziren hamar minutu pasa leku erraldoi batera heldu nintzenean. Oso beldurtuta nengoen, eta oihuka hasi nintzen:

—Laguntza, mesedez!!!

Inork ez zidan entzuten, ez zutelako nire hizkuntza ulertzen.

Leku hori benetan beldurgarria zen, makina pila zeuden eta pertsona asko makina horien inguruan. Benetan beldurtu nintzen arbola ezberdinen egur zatiak ikusten hasi nintzenean lurretik zehar.

—Nireak egin du! —pentsatu nuen nire bururako.

Bat-batean, pertsona batek hartu ninduen eta makina batean sartu. Oihuka eta negarrez hasi nintzen. Hori bai beldurra momentu hartakoa! Milaka tresnatatik pasa nintzen mahai baten itxura eman zidaten arte.

Handik egun batzuetara kaxa batean sartu ninduten eta denda batean nengoen kaxatik atera nindutenean. Jarraian, etiketa bat jarri zidaten zenbaki batzuekin. Ez zen denbora asko pasa emakume bat dendan agertu arte.

—Mahai hau gustatzen zait —esan zuen ni seinalatuaz.

Berarekin batera ume txiki bat zetorren, Mikel izenekoa, eta galdetu zuen:

—Ama, nondik etortzen dira mahaiak?

—Mahaiak zuhaitzetatik datoz, horrela egiten dira altzariak.

—Orduan ama, guk ditugun altzari denak egiteko zuhaitzak mozten dituzte? Eta bere familiatik banatzen dituzte?

—Bai, seme.

—Ama, gizon horrek zuhaitzari min gehiago ez egiteko, ahal dugu gurekin etxera eraman eta guk zainduko dugu maitasunez? —galdetu zuen umeak zuhaitzaren azalean ipiniz.

—Bai, eta gure familiakoa balitz moduan tratatuko dugu —esan zuen Edurne izena zuen amak, bere semearen zintzotasuna eta errukiberatasuna antzemanaz.

Ordutik, familia maitagarri honen etxean bizi naiz, bizimodu guztiz ezberdina bizi izaten, baina lehen bezain zoriontsu.

Asko hitz egiten dute nirekin eta maitasun handiz tratatzen naute. Nik ere asko hitz egiten dut beraiekin baina zoritxarrez ez naute ulertzen.

Duela gutxi, entzun nuen Edurne haurdun zegoela eta sekulako poza sentitu nuen nire barnean.

Handik urtebetera ume txikia jaio zen eta arrastaka ibiltzen zen nire hanka sendoei haginka egiten batzuetan, baina muxuak balira moduan hartzen nituen.

Asko maite dut familia hau baina sutan jartzen naiz nire gainean gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen... dutenean eta garbitzen ez nautenean. Baina, beno, suposatzen dut mahai guztiei gauza bera gertatuko zaiela.

Gertaera barregarri asko gertatu zaizkit beraiekin:

Aurreko astelehenean, Iratik, nahigabe libxa potea amaren soineko berriaren gainean bota zuen eta sekulakoa sortu zen, eta barreari eutsi ezinik egon nintzen.


Nire momentu gogokoena familia honetan Eguberri eguneko bazkaria izan zen. Familia guztia bildu zen nire inguruan janari zoragarria jateko. Bertan ezagutu nuen Inaxio, Edurneren anai adarjotzailea; Antton eta Madalena ere ezagutu nituen, Edurneren gurasoak eta Mikel eta Iratiren aitona-amona maitekorrak; Iker eta Maren lehengusu bihurriak ere ezagutu nituen bertan, Inaxiorekin adarra jotzen zebiltzanak denbora guztian.

Atzo, Mikelek Irati jo zuen eta amak zigortu egin zuen sukaldean. Momentu hartan Mikel, haserre, nire gainean eseri zen, negarrez. Pena handia sentitzen nuen bera-gatik eta kontsolatzen saiatu nintzen, baina beti bezala ez ninduen ulertu.

Asko gustatuko litzaidake beraiekin komunikatu ahal izatea, nahiz eta moduren batean, nabaritzen dudana modu ezberdin batean ulertzen nautela eta komunikatzen gara. Ez dakit..., sentimendu arraro bat da.

Ondo egongo litzateke norbaitek asmatuko balu tresnaren bat pertsonekin komunikatzeko. Aukera bat izango litzateke pertsonak zer esan nahi duten idaztea eta gero guk irakurtzea eta gu, idatziz edo markak eginez, beraiekin ulertzea... Ez dakit, ideia bat proposatu dut bakarrik.

Horrelako gertaera asko gertatzen dira familia honetan eta oso pozik nago. Esan dezaket lehen bezain pozik bizi naizela bizitza guztiz ezberdin honetan, eta nork daki, behar bada ez da nire azken bizitza izango.



Azken hitza

IPUINA

Saioa Garin

Baugarren taldea 3. saria

Balentiaga 18

Azken hitza

ALLISON

Denak lurrean zeuden, ni arnasestuka, ez nekien nor zegoen esna eta nor ez, pentsatzearekin hotzikarak nituen gorputzean zehar. Gora begiratu eta non nengoen pentsatzen hasi nintzen. Jaikitzen saiatu nintzen, alferrik, hanketan nuen mina ikaragarria zen. Begiak zabaltzen ere saiatu nintzen, alferrik berriz ere; dena ilun zegoen. Banuen gorputzean sentsazioa, zerbait oso gaizki zegoen, zergatik egongo nintzen ni hor? Zergatik ezin nituen hankak mugitu? Zergatik entzuten zen bakarrik nire arnasa? Galderak egiteari utzi eta azkenengo saiakera egiten saiatu nintzen, izan ere, nire bizitza eta besteena arriskuan zegoela iruditzen zitzaidan, baina okerrena, zergatik sentitzen ote nuen beste pertsona batzuk zeudela nirekin, ez banekien nortzuk ziren? Azkenean, jaiki nintzen eta eskuak aurrera eramanez ibiltzen hasi nintzen, eskuak babes moduan erabilita. Bat-batean, zerbait mugitzen zegoen eta nik, beldurrak ikaratuta, eskuak azkar nire gorputzera eraman nituen erabateko babes modura. Konturatu nintzenerako lurrean nengoen, eta ezin nituen begiak segundo bat baino gehiago zabalik eduki, nire burua eta gelako beste pertsonak laguntzeko saiakerak egin nituen baina banekien ez nintzela leku ilun hartan esna zegoen bakarra eta banekien baita, ni ez bezala beste pertsona hura ez zegoela ni bezain zaurituta. Ez nuen etsi nahi, eta magia izan balitz bezala gogoratu nuen sakelan nuen tramankulua, azken urte honetan garrantzi gutxi kotzat izan nuena, eta momentuan nire eta besteen bizitza salbatzeko nuen aukera bakarra zena.

Telefonoa piztu eta zer ordu zen begiratu nuen. Goizeko bostak zirela ikusi nuen eta nire barnerako pentsatu nuen zer egongo nintzen egiten goizeko ordu horietan leku

ilun hartan. Telefonoa eskuan neukala ikusi nuen ez zegoela koberturarik, horrek esan nahi zuen ezin nuela inor deitu, ez anbulantzia ez polizia. Orduan, argia egiteko erabiltzea bururatu zitzaidan. Jaikitzen saiatu nintzen berriz ere, eta telefonoaren argiarekin ikusi ahal izan nuen non nengoen, baina ez denbora askoz, izan ere, lurrera bota ninduten bultzakada batez, eta hor itxi nituen begiak, hor geratu nintzen lurrean, etzanda. Azkenengo pentsamendua eduki nuen, banekien nork egin zidan bultza, eta pentsatzeaz bakarrik dezepzioa sentitu nuen, eta gogoratu nuen zergatik nengoen gela hartan. Momentu hartan izan zen gogoratu nuenean zeintzuk zeuden lurrean etzanda: Alex, Noah, Autumn eta Alysha. Berehala gogoratu nuen dena. Triste nengoen, ahal nuena egin nuen beraiek salbatzeko baina nire buruak bazuen zerbait, bultza egiterakoan buruak lurra jo zuenean, sumatu nuen ez nituela berrirori begiak inoiz zabalduko, ez nituela inoiz nire lagunak berriz ikusiko eta agurra balitz bezala eta laguntzeko inttentzioarekin telefonoko grabatzailean nire azken hitza grabatu nuen, hain zuzen, hiltzailearen izena esanaz.

Bi hilabete lehenago...

Aireportua jendez gainezka zegoen, uda zen, jende guztia udako arroparekin zihoan, baina bera ez, berak ez zituen udako arropak, negu hotzekoak zituen jantzita, izan ere, Allison bakarrik zihoan Alaskara, Seattletik aterata. Arrazoia? Bere iragan gogorretik ihes egiten ari zen; gogorra motz geratzen zitzaion hitza zen. Bizitza zaila eduki zuen, 18 urte bete eta lanean hasi zen, umeak zaindu zituen eta unibertsitatara joan zen. Orain, 24 urterekin, dena galdu zuen, umeak, lana, familia, lagunak eta baita bizitzeko gogoia ere. Eta ez, ez ziren berak edukitako umeak zaindu behar zituenak, bere gurasoenak baizik, izan ere, bere ama txikia zenean hil zuten eta bere aita desagertu egin zen, ez zuen berrirori ikusi. Bazekien bere gurasoek 15 urterekin eduki zutela Allison, eta orduan ez zirela oso zaharrak izango. Anaia zeukan, James izenekoa, baina ez zen munduan gogokoen zuen pertsona, bere iragan gogorrean zerikusi handia izan zuen eta.

Ordu batzuk beranduago hegazkinean zegoen bere eserlekuan, ondoan nor zuen begiratu zuen, lo hartu zuen arte.

Alaskan sartu zirela nabarmen sentitu zuen. Egiten zuen hotza ez zela osasungarria pentsatu zuen eta marmarka galdetu zion bere buruari zergatik ez ote zuen beste leku beroago bat aukeratu. Alaskako kaleetatik ibiltzen zihoala, taberna bat ikusi zuen,

norabidea aldatu eta tabernan sartu zen kafe bat hartzeko asmotan, izan ere, egiten zuen hotzak ez zion aurrera jarraitzen uzten. Tabernan sartu eta berehala galdetu zioten:

—Zer ari da egiten zu bezalako neska bat hemen? —galdetu zion oso modu txarrez tabernako mutilak.

—Taberna bat denez, kafe bat hartzera etorri naiz, baina ikusten dut nola ematen duzun ongietorria —erantzun zion Allisonek marmarka.

—Normalean ez ditugu bezero kanpotarrak edukitzen eta orain gutxiago —esan zuen mutilak harrituta.

—Eta nola dakizu ez naizela hemengoa? —erantzun zion. Ez zion inongo grazia-rik egin iritsi eta horrela tratatzeak—. Zergatik ez nintzen etorri behar orain?

—Nahiago zenuke ez jakitea eta hobe zenuke aireportura joan eta hemendik ateratzea —erantzun zion bere lanarekin berriz ere jarraitzeko asmoarekin.— Zure pasaportean jartzen duelako dakit ez zarela hemengoa, Seattlekoa baizik.

Allisonek mahaia eskuarekin jo zuen zer gertatzen zen galdetuaz, izan ere, hor bititzen geratu behar bazen ez zuen nahi iritsi eta berehala gauza garrantzitsuak ezkutatzen ibiltzea.

—Alaskan zer gertatzen den galdetu dizut eta zuk erantzun egingo didazu —esan zion oso serio.

—Halako gogoia badaukazu, esango dizut —mutilak txakur zauritu batek bezala begiraten zion, lehen zeukan begirada hotz eta gogorra erabat desagertu baitzitzaizkion—. Alaskan, herri honetan, hiltzaile arriskutsu bat dagoela esaten omen dute. Oraindik ez da hilketarik egon, baina jendea guztiz beldurtuta dago —eta bat-batean bere begirada gogorra bueltatu zen—. Nik, zu banintz, erabateko arreta mantenduko nuke, ez dakizulako noiz zaurituko zaituzten —horrela, haien arteko elkarriketa amaitzeko asmotan egon zen, baina azken esaldia esaten hasi zen—. Ia ahaztu zait, ni Jackson naiz.

Allison aho zabalik geratu zen. Bere izena esateko asmoa zuenean konturatu zen bere pasaportean jartzen zuela eta ziur aski irakurriko zuela jadanik. Une hartan, neska bat eta mutil bat atera ziren sukaldetik. Biak Allisonen adin berekoak izango ziren, baina neska ile hori argikoa zen eta oso azal zuria zuen, ia elur kolorekoa, eta aurpegian zehar peka batzuk zeuzkan sudurra inguratzen. Mutilak, berriz, ile beltza zeu-

kan, ikatzaren kolorekoa; azal zuria zuen baina ez neskak bezain bestekoa, eta neska baino altuago zen. Jackson, berriz, ez zen bestea bezain altua, baina neskari zentimetro dezente ateratzen zizkion.

—Egun on eta ongi etorri gure tabernara. Zer gustatuko litzaizuke hartzea? —esan zuen neskaren ondoan zegoen mutilak atseginez.

—Egun on, kafe deskafeinatu bat, mesedez. Behintzat badago jende atsegina tabernan... —erantzun zuen Allisonek, Jacksoni begirada hotz bat botatzen zion bitartean.

—Barkamena eskatzen dizut, ez da oso atsegina izaten eta gainera orain gertatzen ari denarekin... gutxi batzuk geratuko dira Alaskan —esan zuen mutilak zintzotasunez.

—Hiltzailearen kontuagatik, ezta? —galdetu zuen Allisonek, erantzuna jadanik jakinda.

—Nork esan dizu? —galdetu zuen mutil altuak.

—Zure lagun atseginak —erantzun zion ironiaz Allisonek.

—Egia da esan dizuna, baina oraindik ez da egon hilketarik; beraz, ez dago kezkatu beharrik. Hainbeste gauzarekin ahaztu egin zait, ni Alex naiz eta nire ondoan dagoena, berriz, Autumn —adierazi zuen neskari eginez erreferentzia.

—Kaixo eta egun on —esan zuen zintzotasunez Autumnek.

—Kaixo. Klean ez dut jende asko ikusi eta ez dakit non dagoen nire etxe berria. Lagunduko didazue topatzera, mesedez? —galdetu zuen lotsatuta.

—Noski, Autumn eta Jackson hemen geratu daitezke taberna zaintzen eta nik lagunduko dizut —erantzun zion Alexek.

Egia esanda, ondo zegoen, jadanik, lagun antzeko batzuk egitea, pentsatu zuen Allisonek.

Goizean goiz tabernara joan zen gosaltzera eta bere lagun berriekin egotera. Atea ireki eta berehala ikusi zituen Alex, Autumn eta Jackson. Baina konturatu zen ez zuela bakarrik, neska bat eta mutil bat zeuden haiekin hitz egiten.

—Kaixo Allison. Gure lagunaren izenak esango dizkizut, neska Alysha da eta mutila Noah —esan zuen Alexek irribarretsu.

—Kaixo! Ni Allison naiz eta Seattletik iritsi berria naiz —esan zuen Allisonek.

Haiekin hitz egiten egon zen egun guztian zehar, oso gustura egon ziren denak batera. Allison oso gustura sentitzen zen, ongi etorriak lagun berriekin bere bizileku berria errazagoa egitea lortu zuen.

Hilabete eta erdi eramaten zuen Alaskan dagoeneko eta gero eta gusturago zegoen. Denak egin ziren oso lagunak, Jackson izan ezik, berarekin ez zuen inongo harremanik izaten, oso arraroa eta hotza zela iruditzen zitzaion Allisoni. Tabernan zegoela Jackson ikusi zuen Allisonek taberna kanpoan neska batekin. Neskak bera ikusi bezain pronto irribarre egin zuen eta bere izena Sydney zela esan zion eta bera eta Jackson batera zeudela ere aitortu zion. Allisonek pentsatu zuen bere barnerako ez zuela ulertzen nola egon zitekeen Jackson bezalako mutil hotz eta arraro bat Sydney bezalako neska irribarretsu eta atsegin batekin. Neska oso ederra zen aurpegiz, ile horia eta azal leun eta zuria zuen; baina ez hori bakarrik, oso jatorra zen eta Jackson, berriz, guztiz aurkakoa.

Tabernan berriz sartu eta berehala harritu zen Allison, izan ere, bere lagunak ikara aurpegiak ziren nabarmen.

—Zer gertatu da? —galdetu zuen Allisonek.

—Ez dakit nola azaldu, baina... Alaskan zegoen hiltzaile famatu horren txutxu-mutua egia dela argitaratu dute, izan ere, lehenengo hilketa egin du —erantzun zuen ikaratuta Alexek.

—Noiz? Nola? Ezagutzen al dugu? —galdetu zuen berriz ikaratuta Allisonek.

—Ez. Zuk ez duzu ezagutuko, izan ere, 56 urteko andre bat hil du. Egunkarian jarritzen duenaren arabera uste dute norbait hiltzearen hil duela emakume hori hiltzaileak, baina hurrengoak ez direla edonola aukeratuak izango, hau da, arrazoi bat egongo dela hiltzeko —erantzun zuen Alyshak.

Hori entzun ondoren, denek erabaki zuten ideia ona izango zela denek batera egitea lo Sydneyren etxean, izan ere, denak beldurtuta zeuden eta inork ez zuen nahi gauean bakarrik lo egin.

Gaua heldu zen eta denak zeuden Sydneyren etxean goxo-goxo tximiniaren ondoan. Pixka batean hitz egiten egon ziren eta azkenean bakoitza bere gelara joatea erabaki zuten. Alex eta Allison gela batera joan ziren, Noah, Alysha eta Autumn beste batera eta Jackson eta Sydney hirugarrenera.

Denak zeuden lo baina, bat-batean, Allisonek zarata bat entzun zuen, atea ixten balego bezala. Jaiki eta leihotik begiratu zuen nor zegoen ateratzen edo sartzen. Hantxe ikusi zuen Jackson kanpora ateratzen. Arraroa iruditu zitzaion baina ez zen atzetik joan eta ohera sartu zen berriro.

Lo egin zuen pixka batean baina, berriz ere, zarata bat entzun zuen. Oraingoan ez zen atea, baizik mugitzen zegoen pertsonaren bat. Jaiki eta nor zen begiratzera joan zen Noahren eta besteen gelara, baina iritsi eta ez zeudela konturatu zen. Orduan bai harritu eta ikaratu zen guztiz! Bere gelara bueltatzeko asmotan zegoela beste zarata bat entzun zuen, norbait lurrera jausi balitz bezala eta Alex nola zegoen begiratzera joan zen gelara. Korrika eta arnasestuka sartu zen bere gelan eta ohartu zen Alex ere ez zegoela bere ohean. Orduan, Jackson eta Sydneyren gelara joan zen eta bertan ere ez zegoen inor. Bazekien Jackson ez zela bueltatu atera zenetik ez zuelako atearen beste zaratarik entzun. Orduan, ezinezkoa ematen zuena gertatu zen, norbait etorri zitzaion eta bat-batean xiringa bat lepoan sartu zion, eta berehala jausi zen lurrera Allison.

JACKSON

Iritsi eta ikusi nuena ezin sinisturik geratu nintzen. Berehala mugikorra hartu eta anbulantzia deitu nuen. Oso kezkatuta nengoen, gehienbat Allisonengatik, beste guztiek arnasten zutelako baina Allisonek oso poliki eta gaizki arnasten zuelako. Ikaratuta nengoen, ez nekien zer egin; okerreana zen nire lagunak arriskuan zeudela eta banekiela nor zen hori dena egin zuena. Ez zitzaion ondo atera ni iritsi nintzelako baina, bestela, denak hilda egongo zirela ez nuen dudarik. Ez nuen espero horrelakorik berarengandik. Lurrera begiratu eta Allisonen telefonoa piztuta zegoela ikusi nuen, begiratu eta grabaketa zela konturatu nintzen; entzun eta bere azken hitza zela ematen zuen Sydney esanez. Suposatu nuen laguntzeko asmoarekin egin zuela. Tristura gehien ematen zidana Allisonen bizitza zen, izan ere, ni nintzen Allisonen aita, bera txikia zenean desagertu nintzena. Asko damutzen nintzen hortaz baina bere onerako egin nuen, horregatik tratatzen nuen gaizki Allison, ez nion nire alde ona erakutsi nahi, bestela konturatu egingo zelako nor nintzen benetan.

Medikuarenean egon ondoren, denak atera ziren negarrez, dena aldatu zen: Sydney kartzelan zegoen; Alex, Noah, Alysha eta Autumn bizirik eta sano zeuden haien etxeetan, eta gertaerarik tristeena izan zen Allison hil zela, bere azkenengo hitza esan eta gero.

SYDNEY

Eskerrak, gaizki atera arren, Allison hilda zegoen! Hainbeste eta hainbeste urte saia-kerak egiten eta ezin lortu. Azkenean iritsi zen nire eguna, Allison eta bere ama hilda zeuden! Familia horrek egindako guztiaren ondoren merezi zuten, jakina baietz! Izan ere, inoiz ez nien barkatuko! Bihozgabe madarikatuak! Haien familiakoa izan eta abandonatzea ere... Familiarik gabe bizitzea oso gogorra izan zen, eta bitartean, Allison madarikatuak dena zeukan: guraso onak, familia zoriontsu bat... Baina ni ez nintzen zerrura begira geratu behar, ez horixe, zerbait egin behar nuen! Eta azkenean, alaba eta ama hil nituen. Aita jatorra iruditu zitzaidan, izan ere, alaba abandonatu zuen 16 urte zeuzkanean, hori bai ona niretzat! Allisoni bizitza ezinezkoa egin ondoren, Alaskara bizitzera joatera bultzatu nuen, bere gelan poster handi eta polit bat jarritz.

Ez naiz damutzen egindakoaz, ezta pentsatu ere! Ume izanik ama edukitzearen ilusioa kendu zidaten, anai-arrebak edukitzeko ilusioa, eta, batez ere, maitasunez beteriko familia zoriontsu eta alai bat izateko ilusioa. Baina, horren ordezt, bakardadean haztea tokatu zitzaidan. Esaten duten bezala, ez duzu familia zuk aukeratzen. Nik bakardadean hazten ikasi dut, bakardadean bizitzen eta inork ez nau hezi. Sentitzen dut, baina ume bat abandonatzearen edo hiltzearen artean ez dago hainbesteko desberdintasunik. Askok galdetuko duzue nola egin nuen bakarrik bizitzeko, baina ez al dakizue laguntzatxo bat eduki nuela? Zein izan zen laguntza? Allisonen amets gaiztoa izan zena, hain zuzen ere, bere anaia preziatua. Zergatik zen amets gaiztoa bera anaia? Lehenik ez ziolako laguntzen, agresio sexuala erabili zuelako berarekin eta azkenik, ez zuelako inondik inora ere maite. Hori da benetan min egiten duena, nik badakit zer den maitatua ez izatea, ondo baino hobeto, alegia.

Horrela da bizitza, hiltzaile bat naizela pentsatu arren, zuek zer egingo zenuten dena kendu izan balizute? Bakarrik bizi behar izan bazenute? Argi dago ez dela erraza. Ez nagoela ondo burutik? Agian ez. Baina nork kentzen dit jaio nintzenetik nik sentitu izandako bakardadea? Maitatua ez sentitzea. Sentimendu txarrena, nork bizi izan du nik bezala?

Amaiera izan daiteke edo agian ez.

Ardura
al dizu?

IPUINA



Aitor Regueiro

Bosgarren taldea 1. saria

Balentiaga 18

Ardura al dizu?

“Ze kristo?!?!?!?” zioen haserre Jaionek autobuseko aire girotuaren zirrikituari, beregana zuzentzeko beharraren beharrez. Irail erdialdeko igande eguzkitsu hark euri-tsua behar zuen izan ikasle honen ajearentzat, eguzkia eta argitasuna ez direlako beti gustagarri, hauek ere erretzen dute. Euria eskatzen zion gorputzak, aitzakia gehiago behar zituen sofaren tamaina gorputzarenarekin alderatzen ibiltzeko, arratsalde osoa horretan emateko, bigarren astez berea zela sentitu nahi zuen Gasteizko etxe hotz eta arrotz hartan.

Autobusak Gasteizerako bidea galduko balu... hobe! Autopistaren bidea mugatzen duten hesietan galdu nahi luke begirada kilometro luzez, abiadurak errealitatea moldatzen duen erara moldatu nahi lituzke bizimodu berri hark sortzen zizkion sentipenak.

Nolabait ere, ez zitzaion erreza egiten Jaioneri molde bat utzi eta beste batera egokitzea. Bera beti izan zen ikasgela erdialdeko ertz batean jartzen zen neska horietakoa, bere begiradarekin gurutzatu ezin izan arren bere postura zelatatzea erreza den eserleku baten jartzen zena, begiak irakasletik arbelera eta arbeletik koadernora bezatzen zituen, bekainak okertuz matematiketako zalantzak ahots kordetan behera bultzatzen zituen eta, era horretara, bere jakinmina deseraiki zuena. Umiltasun horrek sortzen zuen misterioak limurtzen zuen Joseba, azken lerroan paper zati bilduak jaurtitzen zituen futbolari eta futbolero ustez ahalguztiduna. Orduak pasatzen zituen potroak alde batetik bestera aulkiaren kontra igurzten Jaionek Canovasen eta Sagastaren bio-

grafien zertzeladak burmuinean proiektatzen laguntzen zion boligrafo hari hozkadak ematen zizkion artean. Bere jarkeraren forma moldatu beharrean egoten zen horrela-koetan, etxean apalduko zuen muino txiki bat baitzuen amak bart lisatutako bakero beltz horietan, parranda batean kristau eskolako Mirenek ipurdi polita egiten ziotela esan zionetik maiz jantzi izan zituenak.

Gau hartako ondorioak Jaionek pairatu zituen beranduago. Izan ere, Josebak gela-kidea tabernan sartzen ikusi orduko urrundu zen Mirenengandik, eta azken honek oraindik ez dio barkatu gau hartan txorta jotzeari uko egin modako kirolariari. Besotik oratutakoan konturatu zen Jaione Joseba zela segika zuena. Bi hitz. Gonbita. Txupittoa. Barreak. Txupittoa. Gonbita. Lokala.

Elkartu zirenetik denbora ziztu bizian pasatu bazen ere, erlojuak geldione bat hartu zuen lokaleko txorta-gelaren sarrera hotzean. Jaionek bularren arteko azalean sumatzen zuen lurrikara, eta hasperen labur baina sakonez amiltzen zuen urduritasuna. Pauso bat eman zuen eta inertziak giharrak uzurtu eta bestearen hankartean itsatsi zitzaion eskua, mihiak lepotik gora eta behera bidaiatzen zuen artean. Konturatu orduko, haragizko eskulturatik zintzilik zegoen. Lurruntzen ari ziren bi gorputz itzal bilakatuta zeudelarik porlanezko horma hartan, irudiaren erritmoari erreparatu zion istant batean: motelegi arima gau bakar batean xurgatzeko, azkarregi maitasuna zela sinesteko. Arropak jantzi eta, irribarrez, musu batez agurtu zuen galtzak jantzi berri zituen mutila.

Hurrengo egunean, mugikorra eskuratu orduko mezu pila bat zituen. Hau ez zen posible izango Josebagatik ez balitz, bere ume harroaren aurpegiak engainatuko ez balu. Hitzez sinatu zuten lokaleko jarduna bien arteko loturatik at ez zela irtengo, agian Amaiurri kontatuko lioke zertxobait, ez gehiago. Baina besteak ezin berarentzat gorde. Klaseko neska-mutil guztiek zekiten gertatutakoa, baita Jaionek zirkuan kontorsionista izateko zituen gaitasunak ere, eta bere ahoak bisitatutako txokoak batik bat. Horretan pentsatzen zegoela geratu zen autobusa Arrasaten, eta jendea garraiora igotzen zen bitartean otu zitzaion geroztik larrua jo ez zuela. Biharamunak ahalbidetuta eta pentsamendu horrekin batuta umeldu zitzaizkion kuleroak, plazerezko momentu txiki baten nahian.

Badira uneak zeinetan bizitzak aukerak opa dizkigun, eta halako bat bizitzeko zorian zegoen. Eserlekuen artean agertu zitzaion oparia zekusan: eskalatzeko zapatak motxilatik zintzilik, presoen aldeko kamisetaren azpian irteteko desiratzen ari ziren mus-

kuluak, belarritakoak, *piercing*-a sudurreko alde banatan, ile beltz kizkurduna eta begi berdeak. Kuleroek geroz eta pisu gehiago zutela konturatu zen orduan. Motxila eserleku gaineko apalean uztera zihoala agertutako gerrialdeko muskuluek bihotza azkartu zioten, eta kamiseta laburragoa izan zedila erregutu zion munduari. Atzera begiratu zuen eta autobusa erdi hutsik zegoen. Nahita eseri al zen bere aurrean? Seinale bat ote? Arnasestu leunez, butakako azalari tinko eutsi zion, zein eratara jesarri ez zekiela, pel-bisa magnetikoa bailitzan, mutilaren gorputz metalikoari deika. Buelta erdia eman zuen ezezagun hark. Bihotza lehertuko zitzaiola iruditu zitzaion Jaioneri, gutxi falta zitzaion eskua automatizatu eta bere bularrari tinko eusteko. Aurpegi berri horren aho-tsa entzun zuen lehenengoz:

—Ardura al dizu? —hatzarekin mugimendu pendularrak egiten zituen autobusa-ren luzeraren zentzuan, aulkiari begira, posizio etzanago baten egon nahi zuela adieraziz.

Ura erori zitzaion hankarteko suari, eta egoera zein zen ikusita eta ezetzik esan ezin zezakeela onartu egin zuen bizitzaren behin behineko opari haren eskaera. Zamarra-rekin gorputza bildu, leihoaren aurka pausatu eta zurrunga batean hasi zen oparia.

Gasteizerainoko bidea ezta izan zen mito erotiko berriak bere *sex-appeal*-a deseraiki osteko asimilazioa gauzatu eta gero. Erreza egin zitzaion begirada lurreko lerroetan gal-tzea eta ezertan ez pentsatzea. Gurpilak nasan sartu orduko esnatu eta ihes egin zuen opariak. Abenduko gau bat bezain amaigabea egin zitzaion tranbiaren ibilbidea, baina behin etxean izanik, bakardadeak eskaintzen zion baretasuna profitatu eta kanuto bat erre zuen, sofaren luzeran gorputza egokituz. Opariaz gogoratu zen azkar batean, eta zilborraren bueltan zituen eskuak gerriaren hegoaldera bideratu zituen. Mutilaren ge-rria berearen kontra kolpatzen zuela irudikatuz barruko arropa kanpotik ukitu zuen. Bere matraila izterren artean aurkitzea nahiko luke, bere arnasak jada beroa zegoen alua epeltzen zuela sinetsi nahi zuen, mihiaren ibilbidea hatzarekin marraztuz. Behetik go-rako horretan taxuz arakatzen zituen izkina guztiak, klitoriaren suzirira iritsi arte. Pla-zerak bereganatu zuen zentzua eta kotoizko laino horretako azken bulkadan konturatu zen orkatilak beste aldeko besaulkitik haratago jarri zitzaieela.

Astelehenaren ardura da asteko lehen argi izpiak jalgitzea. Dutxa baten ardura da ajearen azken zantzuak ezabatzea, eta igogailuarena egunaren atzera kontuaren erlo-jua aktibatzea, egun hura atzera kontu bat besterik ez zelako. Kanpuseko atarian

agurtu zituen pisukide oñatiarrak eta letren fakultatera sartu zen, zein gelatara joan behar zuen jakin gabe. Korridorearen alde batetik bestera ikusi zuen Ekhine, gelakide goizuetarra. Diosala egin zion Jaionek beste aldetik. Unibertsitate publikoaren antolakuntzaren gabeziak zerrendatzen ari zirela aurkitu zuten gela. Paleolitikoaren bi orduko txapa. Zigarroa. Irakaslearen huts egitea. Zigarroa. Kutxi. Tortilla eta zurittoa. Kanutoa. Zigarroa eta zurittoa. Agur.

Azkar pasa zitzaion eguna Ekhinerekin. Etxerako bidean konturatu zen taberna kanpoan zeudela hasi zela nabaritzen nola behatz puntetatik sustraiak ateratzen zitzaizkion, eta nola lotzen ziren adokinetako zementuari.

Giltzak ohe ondoko ikasmahaian emeki uztearen plazera sartu zitzaion belarrietatik, arropak lurrera bota eta pijamaren goxotasuna sentitzera mugatu zen etxera heldutakoan. Leihotik parkeko txakurrei so zegoela arratsean zer egin pentsatzeari ekin zion eguzki-somniferoaren azpian. Sukaldean sartu, amaren *tupper* formako oroigarria hustu, berotu eta mikrouhin labearen txirrinarekin batera jo zuen mugikorrarenak. Ekhi-neren mezu bat zen: “Gero 17:00 hitzaldi feminista gatzetxean. Bazatoz?”. Segidan erantzun zion: “Aurretik pote pare bat hartuz gero bai ;)”. Behin hitzordua finkatuta, epelduta zeuden dilistak deuseztatzen hasi zen, familiaren oroitzapena desagertzen zihoan aldi berean. Kaleko arropak jantzi ostean lo zeuden lagunak agurtzeko imintzioa egin eta eskaileretan behera lasterka, goizeko zortzietan igogailuaren baitan iraulitako hareazko erlojuaren aurka egin nahian, egunari zukua xurgatzeko xedez. Bizikletari begira geratu zen, bere funtzionamenduarekiko zalantzak alde batera utzi eta aukerez gainezka zegoen hirira azaleratu zen.

Hainbat auto saihestu eta gero heldu zen Txapel tabernara. Kanpoan eguraldi izugarria izanda ere, nahiago zuen kafesne batekin barrenean itxarotea, egunkaria irakurtzen zebilenaren plantak eginez, benetako abertzaleak egingo luketen lege. Beste norbait zenaren ideiak ahaldundu zuen Jaione, izugarrizko zirrara sortzen zion Gas-teizko kale alternatiboaren erreferente izatea. Interesa piztu zion artikulua bat irakurtzera zihoala sartu zen Ekhine atetik, justu idazkiari miope begiradaz begiratzen zionean, begiak erdi itxita zituela, lerroak antsietatez irunsten egongo balitz bezala. Zerbeza pare bat edan, erakargarriak ziren pare bat pertsona identifikatu, ostegunerako parranda plana egin eta hitzaldira. Gatzetxera bidean isilik joan zen Jaione, zerbait garrantzitsu eta iraultzailearen parte izango zela jakitun zelako. Jendea aztertzeari ekin zion: arropa

koloretsuak, zapiak ile desordenatueta, uztaiak sudur, ezpain eta belarrietan... eta bat-batean bera, Arrasateko oparia, lehengo lerroan jarrita, hankak gurutzatuta, alboko pertsonarekin eztabaida lasai batean bilduta. Buruarekin baiezko keinua egiten lepoak sortzen zituen uhinek edonor konbentzitu zezaketen, baita bere belarritakoen dantzak. Ezin zuen sinetsi hain azkar berriro opari hura ikustea, gainera ekintza feminista bateko lehen lerroan. Hamar puntu opariarentzat!

Hitzaldiak iraun zuen ordu osoan ez zion hizlariari segundo bakar batez ere erreparatu. Opariaren okzipitalari begira eman zuen erakusketaren asistentzia. Beregana jo nahiko luke, milaka gauza esan nahi lizkioke azken egunetan obsesio bihurtutako mutil hari.

Amaitutakoan, etxera bueltan zeudela Jaionek ez zuen gauza handirik esan, barnertutako bizpahiru kontzeptu errepikatzen zituen, bere botetako puntak lauzen lerroekin nola batzen ziren begiratzen zuen artean, opariaren silueta burmuinean bueltaka zuelarik. Ez zekien guzti hura nola prozesatu: alde batetik, posible ikusten zuen inoiz ezezagun harekin topatzea eta sikiera elkarriketa bat izatea, eta bere baitan elkarriketa haiek erproduzitzen zituen, gertatzekotan zer esango liokeen jakiteko. Bestalde, noizbait pertsona harekin berba egingo zuelako usteak sekulako artegatasuna sortzen zion Jaioneri. Konturatu orduko, gelakidea agurtu behar zuen, begirada galduarekin “agur” hauskaitz bat luzatu zion, jada hiriak eskatzen zuen hotz berarekin.

Astelehena bezain azkar pasatu ziren hurrengo egunak, osteguna izan ezik. Goiz mar-dula ostegunekoa, gaua iristearen irrikak balaztak jarri zizkien ordulariaren orratzei eta igogailuan goizero iraulitako hareazko erlojuaren aleak sendoagoak ziruditen. Hala ere, heldu zen Kutxin zurittoa esku artean izateko momentua. Taberna bakoitzaren sarreran zeuden pertsonak goitik behera miatzen zituen, urduritasuna bere gain hartuz.

Mihiak pisua hartu zuen gaueko hamabietarako. Barran zerbezak ordaintzeko diru-zorroaren bila zebilela pare bat pauso eman zituen atzerantz, baita atzean zegoenaren kontra jo ere. Buelta erdia eman eta segidan ezagutu zituen begi haiek, oparia zen, zalantza gabe. Ausardia bere izaeraren ezaugarri nagusia ez bazen ere, hitz egin zion aurrean zeukan opari hari:

—Aupa! Zu Arrasatekoa zara ezta?

—Bai, Mikel naiz. Zeu zein zara ba?

—Jaione, Bergaran bizi naiz. Autobusean ikusi zintudan igandean.

—Aiba! Egia!

Ahapaldi bat hartu zuen elkarriketak, Jaionek astean zehar momentu hau entse-atzeak ez zion lagundu, baina berriz ere ausardiak irabazi zion zentzuari:

—Txupito bat nahi?

—Tira, lagunak aurki joango dira beste batera... bueno, zergatik ez?

Josebarekin gertatu zen antzera, txupitoak hartu eta hitz gutxiz lortu zuen eskulturaren atentzioa beregan zentratzea. Ekhinetaz gogoratu orduko ingurura begiratu zuen eta konturatu zen bera ere bazebilela bere ezpainak beste mutil bati eskaintzen. Beste txupito bat hartu eta segidan egin zion opariari etxeratzeko gonbita. Mikelek ez zuen asko pentsatu eta eskutik helduta irten ziren tabernatik.

Ettxera bidean ezin zion egoerari aurre egin. Sinesgaitza suertatu zitzaion unea eta ibilera okertzen hasi zitzaion Jaioneri. Izterrak talka egiten zuten elkar, lepoa lurrerantz okertzen zitzaion eta ia ezinezkoa zen elkarriketari zegozkion hitzak aurkitzea, azken txupittoa madarikatzen zuen ahopeka Mikelen bakarriketari kontra eginez. Asmoak aldatu zitzaizkion Jaioneri, haserre zegoen bere buruarekin momentua aprobetxatu nahi ez zuelako. Hala ere, bebarruko atea ireki zuen eta Mikeli sartzeko esan zion. Igogailuak sokak tenkatuz kabina igotzen hastearekin bat oreka galdu zuen eta Mikelen gainera erori zen. Bestearen eskuak bere ipurdian igarri zituen. Bultzada txiki bat egin zuen beso haietatik ihes egiteko. Mikelek, aldiz, bultzada horri Jaionerekiko pausuz erantzun zion, gerrialdea Jaioneren sabelaren kontra indarrez itsatsiz. Atea ireki zenean korrika ireki zuen etxea. Logelara sartutakoan arropak erantzi gabe salto egin zuen ohera, begiak itxita mantenduz. Mikelek kamisetaren azpitik eskua luzatu zion Jaioneri. Azken honek itxaro zezala eskatu zion, baina besteak bere gorputzaren gainean luzatu zituen bere giharrak. Irudiak nahasten ari zitzaizkiola eztarrian berotasun azido baten menpe ukabilkada bat eman zion paparrean eta komunera joan zen korrika. Bertan hustu zituen erraiak, afaria ez ezik sentitzen zuen amorrua ere. Komunaren aurrean ongizateri otoi egiten ari zela agertu zen bestea. Ilea bildu zion gorakoarekin nahastu ez zedin, edo hori uste zuen Jaionek, bat-batean belarrian hozkada bat sentitu zuen arte. Eskuak bularretan jarri zizkion gerora, eta arnasestuak entzuten zituen bere gerria hanka mardulez bilduta zegoelarik. Korrika egin nahi luke. Isiltasunaren beharra helarazi zion negar zotinak. Ohera bueltatu zen azkenean.

Eskuak begien altueran paratu zituen Jaionek denbora aurreztu nahian. Sentipenak deseraikitzen ziharduela aurkeztu zitzaion Mikel inongo ehunezko estalkirik gabe. Zakilak begietara begiratzen zion Jaioneri. Okadak biderkatu zitzaizkion:

—Mikel, beste batean izan beharko du, ezin dut nire buruarekin. Barkatu.

—Nola? Ez dut parranda utzi hona etorri eta ezer ez egiteko. Benga, erantzi arropak.

—Benetan, ezin dut. Barkatu, benetan.

—Ongi da, baina ez berriz hitz egin niri.

—Ez ezazu hori esan, mesedez. —Egoera aztertu zuen azkar batean, berriz ere egoera gauzatu nahi bazuen Mikelen eskaera onartu behar zuen—. Zatoz hona.

Arropak kentzen hasi zen gutxika. Kamiseta kendu orduko sentitu zuen Mikelen buztanaren borobiltasuna bere ezpainen kontra. Etsipena eta malkoak tragatu zituen, baina ez zen hori soilik izan bere eztarrian behera joan zena. Azken finean, berak ulertzen ez bazuen ere ezin zuen ezetzik esan, autobusean lehen aldiz ikusi zuenean antzera.

Igande hark eguzkitsua behar zuen izan Jaionerentzat. Euriak behartu zituen ikasleak Gasteizerako autobusa berak ohituratzat zuena hautatzera, egun motzago horiek bizi nahi ez izanaren ondorio. Autobusa jendez josita bazegoen ere, lortu zuen aurreko aulkiak libre zituen leku baten esertzea. Jakaren poltsikoetan aurikularrak bilatzen zebilela geratu zen autobusa Arrasaten. Han agertu zen Mikel bisai zurbilez eta ibilera makalez bidean aurkitzen zituen aulkiak motxilarekin kolpatzen. Jaionerekin egin zuten topo bere begi izoztuek, begizuloen amildegiak Jaioneren erruduntasunean il-tzatuz. Neskaren aurrean bota zuen bere burua hitz bakarra esan gabe. Burura mila gauza etorri zitzaizkion kolpera, baina errukia eta zigorkatzea nagusitu zitzaizkion. Izan ere, ezin zuen ahaztu hain mozkorra ez balego hau guztia ezberdina izango litzatekeela, ez zuela Mikel behartuko bere nahiak bortizki betetzera. Bere txikitasuna harramazkaz sumintzen zuela bota zuen Mikelek aulkia atzera. Betiko galdera bera: “Ardura al dizu?”. Jarraian, ohiko egoera: Jaionerentzat ustez aste danean galdutako lozorroa berreskuratzeko nahia autobusean gozatu beharra, eta heldu osteko desagerpena.

Behin bakarrik ikusi zuen Mikel aste hartan, fakultateko independentzia eguna antolatzen zebilela ikaslego iraultzailearekin bat. Gurutzatutakoan bere begirada bilatu zuen, baina Mikelek mugikorra atera eta ez ikusiarena egin zuen.

Bakardadeak zoriontasunean sortzen zituen arrakalak kalamuz tapatzen pasatu zuen astea Jaionek, osteguna iritsi arte. Independentzia egunak klaseak hutsik utzi zituen letren fakultatean. Ordurako Ekhine eta Jaioneri Irati, Karla, Josebe, Andrea eta Agoitz gehitu zitzaizkien. Agoitzek gau hartan ligatzea zuen helburu.

—Nire ustez estrategia onena zera da, zure harrapakinak zu edonon ikustea, begiak zugar jarriko ditu eta horrela interes minimoa sortzeko probabilitatea areagotuko da, edo?—zioen Ekhinek.

Agoitzek Mikelen taldeko Kepa ezagutu nahi zuen, Lekeitioko jaietan komunean gurutatzu zirenetik bere oheko hamaika istorio entzunda zituelako, bere zerrendako puntu bat izateak jakin mina sortzen ziolako, baina puntu bat nahi luke izan, ez beste ezer. Poteoa horren arabera bideratu zuten gazteek, Agoitz eta Kepa desagertu ziren arte. Hurrengo geltokia, gaztetxea. Hala ere, Jaioneri bueltaka zebilkion Ekhinen estrategia. Kontuan izanik Keparen atzetik ibiltzeaz batera Mikelen atzetik ere ibili zirela, bera bakarrik abiatu zen Akerbeltz tabernara. Taberna ilun hartan bilatzen zuen Mikel. Etsi zuenerako komunerako bidea hartu zuen gaztetxerakoa hartu aurretik. Atea zeharkatu ostean generoak gelaka banandu aurretiko pasiloan aurkitu zuen Mikel lagun batekin, eztul bizian, lerroak antsietatez irunsten egongo balitz bezala.

—Kaixo, zelan zu bakarrik?— Mikelen lagunak adio esan gabe alde egin zuen.

—Galdu egin naiz eta taberna honetan zeudelako ustea nuen.

—Begira, Jaione, barkamena eskatu nahi dizut. Nire jarrera ez zen bidezkoa izan.

—Lasai, nire errua izan zen, gutxiago edan izanez gero dena ezberdina izango zen. Hala ere, beste noizbait gauzak ondo egiteko prest nago, zer iruditzen?

—Ongi da. Bueno, lagunengana noa.

—Emango besarkada bat?

Besarkadaren ostean, muxuak. Muxuen ostean, arnasestua. Arnasestuen ostean, Mikelen larrua jotzeko nahiak Jaione besotik oratuz komunerantz egindako tirakada. Tirakadaren eraginezko izuari erantzuna, Mikelen eskua Jaioneren kuleroetan.

—Zer ostiatan zabilta? Erotuta al zaude? — zioen amorrus Jaionek.

—Erotuta zu! Besarkadak eskatu eta gero ezer ez? —isilunea, Jaione lurrari ebazpenak eskatzen.

—Benga, goazen barrura. —Mikelek jokoa trukatu zuen, eta Jaionek ezin ezetz esan trikimailu horri hasiera eman zionari. Autobusean bigarrenkoz gurutzatu zirenean antzera, nola esan ez diozula azken zigarroa emango jada bere ezpainetan piztuta duenari?

Hamar minututara irten zen Jaione tabernatik Mikeli agur erdia esan gabe. Sake-lakoa atera zuen eta Ekhi-neri hots egin zion. Ehun metrotara irakurri zizkion begiak Jaioneri, gaztetxetik usaindu zitezkeen arazoak. Jaioneren etxera joan ziren. Zerbeza pare bat atera eta hitzak erori zitzaizkien ahotik. Malkoak, garrasiak, laztanak, besarkadak, muxuak... Barearen ostean ekaitza datorren gisan dator barea ekaitzaren ostean. Isiluneak hartu zituen gelako hormak. Arnasa pausatu zitzaien. Jaionek bu-rua altxatu zuenean konturatu zen Ekhi-nen besoen goxotasunaz, eta aurpegia bere esku artean izanik irribarrea ageri zitzaion. Muxuak, besarkadak, laztanak, garrasiak, malkoak... Maite izan zuen Ekhi-neren biluztasuna, maitatu izan zuen Ekhi-ne ere. Iza-rak inoiz baino leunagoak suertatu zitzaizkien gau hartan. Azken bulkadaz konturatu ziren bien oinak elkar zainduko zutela aurrerantzean. Bihotzak bere horretara itzuli-takoan lo hartu zuten. Begiak itxita, titiburuak elkarri begira.

Eguzkiak pertsianaren zirrikietatik agerraldia egin zuenean sumatu zituen Ekhi-nen ezpainak bere ahoan. Begiak irekitzerako atean zegoen jada:

—Benga, Jaio.

Argia,
bizitzarako gidaria

IPUINA



Malen Kalboetxeaga
Bosgarren taldea 2. saria

Balentiaga 18

Argia, bizitzarako gidaria

Arratsaldeko zazpiak dira. Laster helduko da eguzkia sartzera doan une liluragarri hori eta munduan gehien gustatzen zaidan tokian aurkitzen naiz, nire herriko hondartza txiki eta zoragarrian. Hori da nire ezkutaleku pribatua, batez ere neure buruarekin bakardadean egoteko beharra sentitzen dudan egun horietan. Nire oinek txoko eder honetara ekartzen naute ia konturatzeke, normalean bertan aurkitzen baitut batzuetan hainbeste behar dudan bakea eta gaur inoiz baino gehiago behar dudana!

Hemen nago, harea fin eta freskoaren gainean eserita. Olatuak ia nire oinetaraino heltzen dira eta egia esan, bustitzen banaiz ere ez zait gehiegi axola; gainera, hemen beste inon baino hobeto heltzen zait kresalaren usaina.

Bizitza honetan dena ez dela arrosa kolorekoa esaten dit nire amonak eta, egia esan, nahiz eta txikiagoa nintzenean arrazoirik ez zuela pentsatu, gaur egun berarekin ados nagoela esan behar dut. Azken bolada honetan nire ingurua hankaz gora dagoelako sensazioa daukat. Alde batetik, ikastolan gauzak ez doaz joan behar diren bidetik eta nahiz eta nik neure akatsak ditudala onartu, askotan ez naiz oso modu justuan tratatua sentitzen, eta askotan oso gogorra egiten zait goizean jaiki eta ikastolako bidea hartzea, baina ez daukat beste aukerarik.

Familian, bestalde, osasun arazo larri bat daukagu (niretzat izugarri garrantzitsua den familia kide batena) eta hori bai dela benetan gogorra!

Horrek guztiak nire eguneroko bizitza askotan oso latz bihurtzeaz gain, nire izaera ere aldatzea lortu du, baina beti pentsatu izan dut (horrela irakatsi didatelako) maite

nauenak naizen bezalakoa maite nauela eta ez dudala aldatu beharrik, eta eskerrak, nire ondoan dagoen mutil zoragarri horrentzat zerbait ona badudala eta nire akats eta guzti maite nauela.

Eguzkia gero eta gutxiago eta urrunago ikusten dut eta badira gau batzuk lorik egin ezinik nabilela, eta momentuko lasaitasunarekin logura etortzen ari zaidala konturatu naiz eta bat-batean... lo gelditzen hasi naiz...

1920. urteko abendua da eta hemen nago, egunero bezala, itsaso zabalari begira. Urteak daramatzat hemen geldirik, inor ikusteke eta inorekin hitz egin gabe. Inoiz ikusi dudana itsasargirik tristeena naiz. Aspaldian gelditu nintzen argirik gabe eta ez dut ezer tarako balio. Gaur oso eguraldi txarra dago eta okerrera egingo duela dirudi. Itsasaldean sekulako tximistak ikusten dira eta haizea ere oso bortitza da gaur. Gauzak okerrera doaz eta sekulako ekaitza hasi da. Inoiz ikusi dudana ekaitzik gogorrena. Itsasorantz begiratu eta itsasontzi bat ikusi dut noraezean, galduta dabil, baina ezin diot lagundu nire argia itzalita baitago eta ezin nau ikusi. Horrela jarraitzen badu harkaitzetarantz joan eta bertan jo eta guztiz txikituta geldituko da. Oso gaizki sentitzen naiz ezin diedalako lagundu. Ez dakit zer egin eta sekulako ezintasuna sentitzen dut. Nahiz eta nire energia guztia nire burua argitzen saiatu, nire barnean ez da ezer aldatzen... Hau zoritxarra!

Baina, bat-batean, sekulako tximista nabaritu dut nire gorputza zeharkatzen eta horra miraria! Hainbeste urtetan itzalita egondako argia berriz piztu da eta inoiz baino indartsuago gainera. Orain, itsasontzikoek nire argia ikusi eta hura jarraituz porturantz etortzea besterik ez dut nahi, eta segituan, itsasontziak niganako bidea hartu duela ikusi dut. Ze poza! Azkenean, nire bizitza honek zerbaitetarako balio izan duela ikusteak, nire tristura guztiak pasa izateak zerbaitetarako merezi izan duela ikusi dut.

Ume batzuen oihuek esnatu naute. Nire albotik pasatu dira barrez eta oihuka eta bata bestearen atzetik korrika. Haiei begiratu eta nire umetako garai zoriontsuez oroitu naiz. Zein polita ikusten den bizitza txikitana (arazorik ez, buruhausterik ez...), baina urteekin gauzak aldatu egiten dira eta onartzea besterik ez daukagu.

Poliki-poliki, izan berri dudana ametsetan pentsatzen hasi naiz, eta berriro ere harrea gainean etzan, eta begiak itxi zaizkit...

Baso erdian nago. Zuhaitz eder baten azpian. Beti bezala bakar-bakarrik. Ondo goratzen dut nire buztanak argia galdu zuen gau hura. Lotan nengoen eta nire herriko ipurtargirik harroena etorri zen nire buztaneko argia betiko itzaltzera, eta lortu zuen!

Txikitatik zebilen nirekin haserreturik, ni jaio nintzenetik guztiek esaten zutelako nire argia oso berezia zela, inoiz inork ikusitako bereziena, eta berak hori ezin zuen jasan. Beti ibiltzen zen niri mina egin nahirik, baina ez zuen lortzen, eta noizbait nire argia betiko itzaliko zidala esanez.

Heldu zen eguna eta ni lo nengoela aprobetxatuz aizkora hartu eta argiztatutako buztan zatiaren erdia moztu zidan!

Nire buztana betiko itzali zen eta herritarrek argirik ematen ez zuen ipurtargirik nahi ez zuten, herritik kanporatu ninduten. Harrezkero, bakarrik bizi naiz herri inguruko baso batean.

Gaur oso triste nago, bakardadea gero eta gogorragoa egiten zait eta negarrez hasi naiz. Bat-batean, ahots bat entzun dut eta nire ingurura begiratu dut baina ez dut inork ikusi. Berriro ere ahotsa entzun dut eta oraingoan nire goialdetik datorrela nabaritu dut. Zerura begiratu eta ilargia niri begira dagoela ikusi dut:

—Kaixo lagun! Zergatik ari zara negarrez?

—Oso bakarrik sentitzen naizelako eta argirik gabe ez naizelako benetako ipurtargia sentitzen!

—Lasaitu zaituz! Nik eta nire lagunak lagunduko dizugu eta zure buztan zatitxo horretan inoiz ikusitako argirik zoragarriena piztuko dugu.

—Baina hori ezinezkoa da! Nire argia betiko itzali zidaten eta inork ezin dit lagundu...

—Ez ezazu galdu itxaropena!

Orduan, ilargiak zeruko izar indartsuenari deitu, eta berarekin isilpean hitz egin ondoren, izar distiratsua nigana etortzen ari dela ikusi dut eta, bat-batean, izarra nire buztantxo gainean jarri eta nire barnean sekulako energia nabaritu dut, eta jarraian nire buztanean sekulako argi liluragarria piztu da! Sinestezina!

Ilargiari eta izzarrari eskerrak eman ondoren berriz ere nire herri kutunerantz abiatu naiz. Heldu bezain laster guztiak nire buztan zatitxoak, hain txikia izanik, ematen duen argi koloretsua ikusita, txundituta gelditu dira, eta berriz ere, herrian bizitzera gonbidatu naute, nire barnean zerbait magikoa dudala pentsatuaz. Nire erasotzaileak hori ikusita herritik aldentzea erabaki du eta azkenean neu ateratzen garaile!

Aurpegian zerbait nabaritu dut. Eskua aurpegira eraman eta bertako karramarro txiki bat dudala konturatu naiz. Hondartzan lotan nagoela aprobetxatu du nire aurpegia arakatzeko. Itsasoari begira jarri naiz, eta momentu batez, izan ditudan ametsi buruz pentsatzen hasi naiz. Aspaldian izan ditudan ametsik arraroenak izan dira eta gehien harritu nauena zera izan da: argia izan da amets bietan protagonistek bilatzen zutena.

Horretan pentsatzen hasi eta berehala ulertu dut nire barnetik heldu zaidan mezua. Nik neuk ere nire bizitzan, ametsetako itsasargiak eta ipurtargiak bezala, argitxo bat behar dut nire bizitza zertxobait argiztatzeko eta alaitzeko, eta baita bide honetan gidatzeko ere.

Konturatzeke bederatziak heldu dira eta iluntzen hasi da. Karramarrotxoa uretara eraman, eta sakonki arnasa hartu eta hainbeste indar ematen didan kresal usaia barneratu ondoren, etxerako bidea hartu dut nire familiarekin batera afaltzeko garaiz helatzeko.

Berriz ere errealitatera bueltatzeko garaia iritsi da, baina nire barnean zerbait aldatu dela nabaritzen dut.

Bat-batean, poltsikoan daramadan sakelako telefonoan zerbait nabaritu dut eta esku hartu eta argia piztuta dagoela ikusi dut, linterna hain zuzen ere. Hura itzaltzen saiatu naiz baina ez dut inondik inora hura itzaltzerik lortu!

Argia berriz ere!

Adiskidetasunaren
benetako garrantzia

IPUINA



Amaia Alonso
Bosgarren taldea 3. saria

Balentiaga 18

Adiskidetasunaren benetako garrantzia

—Aitatxo aitatxo! Gorroto dut Paul nire lagun mina. Beno, jada ez da nire lagun mina... gauza da gorroto dudala!

—Nire txikitxo... zer gertatu da? Txikitatik izan zarete bereizezinak eta...

—Bai baina nik maite dudan neska bera maite du, aita! Hori onartezina da.

—Baina baina... zu ez al zara gazteegia neska bat maitatzeko? 10 urte besterik ez dituzu!

—Bai aitatxo badakit... baina dena dela, gorroto dut Paul. Jada ez da nire laguna.

—Seme maitea, lagunak betirako dira. Lagunak zaindu eta kontserbatu behar dituzu denbora luzerako ahal izanez gero. Ba al dakizu zer den laguntasuna? Nik ez nuen jakin zer zen errealitatean laguntasuna galdu nuen momentu arte. Gogoratzen al duzu nola aspaldi esan nizun denboratxo bat pasa nuela zu jaio baino lehenago Alemanian? Kanpoan pasatako denboralditxo hark guztiz suntsitu ninduen, baina orain, zure ama Roseri esker, zeinek jasangarriago egin baitzuen, hobeto sentitzen naiz, nahiz eta horrek ez duen esan nahi nire laguna faltan botatzen ez dudanik... Begira, hemen daukat nire aspaldiko egunkaria.... bota iezaiozu begiradatxo bat.

1945eko apirilaren 30a

Hotz handia egiten du. Ezin dut ia idatzi ere ez egin, baina idazteko beharra sentitzen dut. Ez dago ezer. Alemaniako herrialde gehienak jendez hutsik eta suntsipenez

beteak daude. Sobietar Batasuneko armada gu baino lehenago heldu da Berlinera, eta Alemania Naziaren buruzagia hilik aurkitu dute, hau da, Hitler. Esaten dutenez, suizidatu egin omen da.

Herrialde gehienak suntsipenez beteak eta jendez hutsik egon arren, nire lagun Ullrich aurkitzeko esperantza dut. Gerra hasi zenetik, berarekin kontaktua galdu dut. Jada 6 urte pasa dira gerra hasi zenetik, beraz, 6 urte daramazkit nire lagunari buruz ezer jakin gabe. Momentu honetan nahi eta behar dudan gauza bakarra gerra bukatzea da, eta berarekin 6 urte luze eta amaiezineko sufrimendu guztia. Hau guztia bukatzera-koan, Ullrichekin elkartu eta ez naiz inoiz berarengandik urrunduko.

Gerra existitzen den gauzarik txarrena da. Egia da beste herrialde batzuetatik laguntza izan dugula, esate baterako Ameriketako Estatu Batuen aldetik laguntza izan dugu. Baina bonbardatuak izan gara beste herrialde batzuen aldetik, eta gug ere bonbardatu izan ditugu beste hainbat herrialde. Egin digutenak eta egin dugunak ekarritako ondorio guztiak kaltegarriak izan direla gizarte osoarentzat argi dago, eta edozer gauzaren aurrean ekidin beharreko zerbait dela uste dut. Ni ere saltsa erraldoi honetan sartuta nago nire herria babesten, ez baitaukat ezer hemendik kanpo. Nire gurasoak orain dela urte batzuk hil ziren Gerra Handian, eta ordutik hona bakarrik bizi izan naiz. Beno, bakar-bakarrik ez, Ullrich izan dut beti nire alboan eta orain ere badakit nire alboan dagoela, nahiz eta ezin dudan ikusi bere irudia. Berarekin bizitako azkenengo momentuaz gogoratzearekin tristura sartzen zait. Oroitzapenak oroitzapenak dira. Oraindik kontserbatzen dut Londresen ateratako argazki hura... hondamendi hau guztia gertatu baino lehenago.

1938ko uztailaren 16a

Uda da eta eguzkiak gogor baina leun aldi berean jotzen du guztion azalean. Atsegin dut uda, urtaro guztiekin konparatuz gero gehien gustatzen zaidan urtaroa da: txoritxoak txioka, egun argi eta eguzkitsuak, zeru urdina, hondartza, lagunekin irteerak... benetako paradisua, dudarik gabe. Esan dudanez, gustukoen dudan udako ezaugarrietako bat lagunekin irteerak egitea da eta oraintxe bertan badut bat. Paseo epel bat ematera noa nire Ullrich lagunarekin. Londresen gaude gure udako oporretako egun batzuk disfrutatzen. Nire gurasoak hil zirenetik bera izan da nire babes eta sostengua. Familia batek adoptatu ninduen baina ezinezkoa egin zitzaidan bertan integratzea. Egun batean, nire adopziozko familia eta ni Alemaniara joan ginen opor

pasa eta mutiko zoragarri bat ezagutzeko aukera izan nuen. Ullrich izena zuen mutiko goxo eta ausarta. Orain arte idatzizko mezuei esker edo oportretan bata bestea bisitatuaz lortu dugu oso loturik egotea eta harremana galdu beharrean sustatzea.

Hau dena idazten nabilen bitartean atzo ateratako argazkiari begirada kendu ezinean nago... Bikaina da biok gure artean daukagun harremana. Bai, gure artean esaten dut, orain mundu osoa tentsio ikaragarri batean integratuta dagoelako. Honekin zera esan nahi dut... Herrialde boteretsuen artean ikaragarritzko lehia dago, Ullrich eta nire herrialdeen artean batez ere, hau da, Alemania eta Britainia Handia. Momentu honetan espero dudak bakarra da egon daitekeen gerra ekidin ahal izatea, eta are gehiago gure artean. Gelditzen zaidan bakarra guregatik errezatzea da, guregatik eta mundu osoagatik. Jainkoak babestuko gaitu, seguru baietz.

1945eko maiatzaren 5a

Ez dakit zergatik, ezta nola ere, ez dudalako ezer gogoratzen baina frentean agertu naiz beso bat apurtuta daukadala. Nirekin dagoen erizainak, hau da Rosek, esan dit zaurituta bukatu nuela azkenengo borrokaldian. Harrigarriena da 5 egun inkontziente pasa ditudala! Ez dakit, ez dut ezer gogoratzen... nahiko nahastuta nago. Esandako guztia baztertuz, esan beharra daukat emakume oso atsegin bat ezagutu dudala. Rose zoragarria da. Denbora guzti honetan nire ondoan egon da ni zaintzen eta sendatzen... Berataz maitemintzen hasi al naiz?

1945eko maiatzaren 6a

Nahiz eta emakume zoragarriena ezagutu dudak, egundoko momentu beldurgarriak bizi ditut gerra hasi zenetik orain arte. Gudan, pertsona baten alderdirik maltzurrena ikusi ahal izango duzu eta hau bukatu arte ezinezkoa da alderdi hoberik ikustea. Inork ez du inorengan pentsatzen. Denok triste, arriskutsu eta berekoi batzuk eginak bukatzen dugu. Bizitako gerra-urte hauek, bizi izan ditudan urterik latzenak izan dira. Herrialdeak bonbardatu ditugu, pertsona errugabeak hil ditugu... Espero dut sufrimendu hau dena azkar bukatzea behin betiko.

1945eko maiatzaren 7a

Ullrich ikusi dut. Ikusi dut eta hil egin dut. Ezin dut sinistu ere egin... Amets gaizto bat bizitzen ariko banintz bezala sentitzen naiz. Idazteko eta nire sentimenduak espresatzeko beharra daukat, zeren egiten ez badut kontzientziak guztiz suntsituko nau...

Nire lagun ziren bi soldaduokin nengoen, Mick eta Joeekin alajaina. Alemaniar soldadu batzuk guri itxaroten zeuden pare bat eraikinen artean, beraz, sakabanatu egin ginen beraien aurka borrokatu ahal izateko. Nik eraikin batean sartzeko aukera itzela izan nuen. Korrika, eskailerak igo eta frankotiratzaile bat ikusi nuen. Orduan, bi aldiz pentsatu gabe, tiroka hasi nintzen. Kontua da, nik banekiela nire laguna Ullrich frankotiratzaileen munduan oso murgilduta zegoela, baina momentu hartan, ez nuen hura pentsatzeko denborarik izan, ezta ausardia ere. Pentsatu gabe, tiroka hasi eta hil egin nuen. Derrepente, zerbait jausten ikusi nuen frankotiratzailearen eskutik. Argazki baten antzeko zerbait zen. Orduan, korrika abiatu nintzen ea zer zen ikusteko. Mundua jausi zitzaidan gainera. Hil berri nuen soldadu hura nire lagun Ullrich zen. Argazkiari arretaz behatu eta Londresen ateratako argazki berbera zela ikusi nuen. Horrek esan nahi du beraz, ikusi ninduela eraikinera sartzen eta nahiz eta bando desberdinetan borroka egin, ez ninduela tiroka hil. Momentu latz hura arte, ez nuen egoki baloratu zer zen benetako laguntasuna... galdu nuen arte. Gorroto dut gerra eta gorroto dut nire burua. Ez diot inoiz nire buruari barkatuko.

1945eko maiatzaren 8a

6 urteko gerra gogorra eta gero, jada bukatu da, European behintzat. Alemaniarrek amore eman dute beraien buruzagi Hitlerren suizidioaren eta Sobietar Batasunaren inbasioaren ondorioz, konkretuki, Berlinen inbasioaren ondorioz. Hori horrela izanda, batzuk etxera bueltatuko gara nahiz eta munduaren beste aldean gerra bukatu ez den. Errutina diferente baten beharrean nago: nire ohearen beharra dut, nire herrialdeko kaileen goxotasuna sentitu nahi dut, nire etxea behar dut. Lagun bat behar dut, emakume bat nire alboan... Baina zoritxarrez, ez daukat ez amodiorik ezta laguntasunik ere. Gerra bukatu da, baina gerrak nirekin ere bukatu du.

1945eko maiatzaren 10a

Gaur heldu naiz Londresera. Jendeak omenaldia egin digu, gutaz harro omen daude, baina ez dakite errealitatean gerra bat zer den, zer egin behar duzun zure burua salbu egoteko, baita zure adiskidearena ere. Hala eta guztiz ere, badakigu aurpegi horien atzean mina dagoela, senideak berriz ikusteko itxaropena dagoela... Gerra bat? Inoiz ez.

1945eko abuztuaren 14a

Gaur egun, Estatu Batuen agindupean zegoen Japoniako Hiroshimako eta Nagasakiko bonbardaketaren ondorioz errenditu da. Ofizialki, gerra amaitu da eta ez bakarrik Europan, beraz, guztiontzat albiste ona da.

Nire bizitzako egun txarrenaren ondoren, gaur, azkenik irribarre bat atera zait, Rosek bisitatu nauelako. Esan didanez, Paul eta Mickeri galdetu omen zien ea non bizi nintzen eta horrela agertu da gaur goizean nire etxeko ate parean. Egun guztian zehar hizketan aritu gara eta orain berriz ere berarekin elkartu behar naiz, afaltzeko gelditu gara eta! Azkenean irribarre bat atera zait, azkenean!

1945eko urriaren 10a

Bai, badakit. Denbora luze bat daramat ezertxo ere idatzi gabe baina oso entretenituta ibili naiz Roserekin. Ofizialki, bikotea gara! Bai, harrigarria da. Uste dut zeharo maiteminduta nagoela. Denbora luze eta triste baten ondoren, pozik nago eta zoriontsua naiz. Asko botatzen dut faltan Ullrich baina Roseren laguntzaz, pixkanaka-pixkanaka hobetzen joan naiz eta aurre egin diot egoerari. Ullrichekin izan nuen hura zen benetako adiskidetasuna, bai horixe. Ez dut Ullrich inoiz ahaztuko eta ez ditut sekula ere ahaztuko berarekin bizitako uneak. Baina orain, nahi dudana ala ez, bizitza bat daukat, bizitza berri bat... Jarraitu eta aurrera begiratu behar dut. Beti izango da nirekin, eta ziur nago Jainkoak beste inork baino hobeto zainduko duela. Eskerrik asko, Ullrich. Ez zaitut sekula ahaztuko, nire lagun maitea. Maite zintudan, maite zaitut eta beti maiteko zaitut.

—O aitatxo, a zer nolako istorio tristea...! Orain bai ulertzen dudala zer den adiskidetasuna. Oraintxe bertan noa korrika nire lagunarekin hitz egitera eta gauzak konpontzera. Mila esker aita, onena zara. Maite zaitut!

—Ai nire txikitxo... Espero dut istorio hau baliagarria izatea. Konturatu zaitez zer nolako balioa duen adiskidetasun batek, eta are gehiago, hasieratik bukaera arte egoki baloratzea eta sustatzea zer-nolako garrantzitsua den jakitea. Adiskidetasuna mantendu ezazu. Batzuetan ez baitago ezer zoriontsuago egiten zaituenik adiskidetasun on bat baino. A, eta nik ere maite zaitut!

Jangelako janaria

BERTSOA



Leire Martin eta Miren Moñux
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Jangelako janaria


(Doinua: Maritxu nora zoaz)

Jangelan janaria
zaila da jateko,
komunera joaten naiz
disimulatzeko.
Purea jarri dute
utzi dut gero,
hain txarra ez da baina
ez dugu gustuko.

Badaude zartaginak,
butano-bonbonak,
esku hobia dauka
etxeko amonak.
Zopak eta dilistak
otordu arraronak
konbinazio hauek
ez dira oso onak.

Jangelako menua
nahiz ta errespetatu
kebaba eta arroza
nahi dugu dastatu
eta telepizzako
janaria eskatu.
Hala jangelan denok
beti disfrutatu.

Janaria probatu,
ez zaigu gustatu.
Platerekoa janda
nahi dugu gozatu,
adostasunera
baietz ailegatu.
Mesedez ta faborez,
janaria aldatu.



Mugikorrean
preso

BERTSOA

Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak
Behenengo taldea Saria

Balentinaaga 18

Mugikorrean preso

Mobil berria erosi eta
gustura goaz salara,
aplikazioan klik bat eginda
oso erraz sartzen gara.
A zelako mundu polita den
egiten digu zirrara,
eskutan dugun mundu bakarra
“aplikazioena” da.

Mugikor barruan nago eta
sarean ni nabigatzen
Youtube barruan sartu naiz ta
“El cejas” nabil aurkitzen.
Hamza sartu da bideo honetara
denak batera flipatzen
ni nago bere bideoa ikusten
ez naiz sekula aspertzen.

Aplikazio denen artean
sartu naiz Instagramean
Logan G-ri segitzen hasi naiz
bere bideoak ikustean.
Argazki batean agertu da
Salva ta Shoteeren artean
zeren pozik egoten naizen ni
Instagramen nagoenean.

Teknologiako mundutara
erraz lortu nun sartzea
eta barruan kosta egiten zait
irteera aurkitzea.
Utzi dezagun behingoz mesedez
mugikorra maitatzea
errazegi sartzen gara baina
zein zaila den irtetzea.

Bulling-a

BERTSOA



Iñaki Aldazabal
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Bulling-a

Ikastolan berria naiz
ta oraindik bakarrik nago.
Gelara sartzen naiz eta
denak begira arraro.
Ez dakit zer pasatzen den
baina hemen zerbait badago.
Gaizki nabil pasatzen ta
asuntoa doa luzaro.
Ezin dut jarraitu eta
bukatu behar da aro.
Asunto hau bestela niri
atera behar zait karo.
Ez dut ezer egin eta
nire aurka norbait dago.

Sei pertsona etorri ziren
korrika nire atzetik.
Hiru hor nire parean
ta beste hiru ondotik.
Borobil bat egin zuten
ta ni erdian bakarrik.
Nahiz eta bakarrik egon
ez nuen batere beldurrik.
Pasiloan ez zegoen
ez maisu ez andereñorik.
Denak hasi ziren jotzen
ez zegoen egitekorik.
Ta azkenean gelditu nintzen
autoestima altu barik.

Herrialdeen
ametsak

BERTSOA



Haizea Arantzabal
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

Herrialdeen ametsak

Belgikan ametsetan
flamenko ikasten
hizkuntza gutxituei
indarra ematen.

Ametsetan Sirian
ez dago gerrarik
bertara joan eta
gerra ikusirik.

Saharan bizi ezkerro
nire ametsetan
ura ikusten dut nik
alde guztietan.

Herrialde bakoitzak
du bere ametsa
baina guztiena da
bai BIZIKIDETZA.

Emakumea

BERTSOA



Nagore Otadui, Paula Palacios

Bigarren taldea 1. saria

Balentiaga 18

Emakumea

Bi mila hemezortziko
martxoan zortzian
antolatu giñuan
greba izugarria,
emakume guztiak
pankarta atzian
ta gure eskuetan
kazuela paria.

Gaurko emakumia
da oso langilia
nahiz ta gizarte honek
nahi dun ukatzia.
Gure ikuspegia
da hain matxistia
daukagun helburua
hori aldatzia.

Lantegi askotan ga
oso ugariak,
baina gure soldatak
dira oso urriak.
Batu gaitezen denok
morez plaza handian
ta erakutsi dezagun
gure ausardia.

Guk zergatik ez

BERTSOA

Garikoitz Lopez de Munain
Jirugarren taldea 1. saria

Balentiaga 18

Guk zergatik ez jarri

(Doinua: ETaren su etenetik)

- | | |
|--|--|
| 1.- Ni ere mundu hontara
behin jaio nintzen persona
bai nik ere ditut zuen
gisara hainbat neurona
hezur, azal, ilusio
bihotz eta kromosoma
ta maite nuen sendi bat
aitona eta amona
atsegin dut jolasean
lagunen konpañi ona
mutik koxkor bat da hemen
zuei hizketan dagona
ta zuen antzera nire
helburu da zoriona!! (bis) | 2.- Sinetsi benetan gure
aberria zen ederra
ereiten gendun lurra ta
jasotzen haren eskerra
egunero jaikitzea
zen niretako plazerra
maitasuna nuen bide
lagun eskuin zein ezkerra
bapatean bilakatu
zen dena txarra, okerra
odol ta penaz jantzi zen
munduko gure bazterra
amak hala esan zidan...
heldu da gurera gerra (bis) |
|--|--|

3.- Sei urte nituen orduan

ta etxea nuen kabi
ez nuen ezer ulertzen
buruan kezka ugari
gauetan negar egiten
entzuten nion amari
paradisu zena ote
inpernuaren atari
gerora gerran hil ziren
aita eta anaia bi
nik otoitz egiten nion
Korana letuz Alari
baina ez zen zer aldatu
ta orain ditut hamabi (bis)

4.- Hildakoak egunero

lehengo lagunak etsai
uneoro ezkutuan
ihes, ezin bizi lasai
ama eta biok geunden
ta inor ez gehiago...ai!
Behin amak horrela esan
zidan... Europa duzu zai
zu joateko haina badut
ta bizi senari jarrai
Ajhmed asko maitez zaitut
ez dut hau zuretzako nahi
agur egin zidan berak
bi begiak malkotan blai (bis)

5.- Amak gizon bati zion

bere aurrezkiz pagatu
ta hamaika ginen barku
batean itsasoratu,
hala esperantza bila
nun bidaia abiatu
irrika sentitu guran
ta pena ezin uxatu
Europak hesi batekin
kolpeka gintuen hartu
etorkinen kanpamentu
batean ninduten sartu
esperantzak zitzaizkidan
hasi orduko bukatu (bis)

6.- Soilik batzuen zorion

kabia dugu iparra
egonkortasuna eta
ospakizunen aparra
gutxin ongi izatea
da askoren zoritxarra
jada malkorik ez daukat
zergatik egin negarra
aukera banaketa hau
da injustua, zantarra!!
duin bizi ahal izatea
eskatzen dugun bakarra
latza da nahi ez zaituzten
munduan bizi beharra (bis)

7.- Bizitakoa bizita

gaur esan dezaket hala
askon miserien kontu
bizi dela kapitala
ta hori ez dela bate
portaera naturala
ahazten zaigulako mundu
hau guztiontzako dala
desio dut bihotzetik
gurea ez den bezala
mundu bat hesirik gabe
aske, anitza, zabala
hurrengo belaunaldiak
behintzat ikusi dezala!!! (bis)



Baliza

BERTSOA

Nerea Madariaga

Hirugarren taldea 2. saria

Balentiaga 18

Baliza

- | | |
|---|---|
| 1.- Izan liteke handia edo
baita maiz txiki xamarra
berri-berria izan liteke
edota oso zaharra
gainontzekoen berdina edo
zurea izan bakarra
barnean oroimen onak edo
bakarren bat ere txarra | 3.- 10 urtetan dena zen ona
dena maitasun polita
azken urtean harremana zen
nahiko nahasten hasita
gaurko honetan ate aurrean
nik maleta ikusita
ate berriak zabaldu behar
nik hau daukat ta itxita |
| 2.- Abendua zen, egin genuen
aspaldi aukeraketa
hiri berri bat, une berriak
atzera ezin da buelta
bidaiatzeko unea da ta
ni ilusioz beteta
poztasun eta ametsez daukat
beteta orain maleta | 4.- Egonezina nagusitu zait
beldur ta galderaz dena
gaixotasun bat dela medio
ospitalean barrena
maletan zenbat gauza nik sartu
hori da nik dudana dema
gaur izango da lehen eguna
baina noiz ote azkena |

5.- Bi urte jada izango dira
ni lan bila nabilela
etengabea saiatu arren
behean dut bizi nibela
azken dei batek egonezina
sortu du nigan itzela
maleta hartu, ta atzerrira
normala balitz bezela

6.- Maleta batek barrenean du
mila bizipen aukera
begiratuaz datorrenera
begiratuaz atzera
datorren hori saiatuz hartzen
ahalik ta onenera
gertatzen dena gertatzen dela
balizarekin aurrera

Bost minutu
gehixau!!!



KOMIKIA



Alaitz Olabarrieta
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

BOST MINUTU GEHIXAU!!



Aho handiko
zapua

KOMIKIA



Oihan Zubiaga
Behenengo taldea Saria

Balentiaga 18

AHO HANDIKO ZAPUA



Adar zorrotzak

KOMIKIA



Irene Valle

Bigarren taldea 1. saria

Balentiaga 18



Arratsalde pasa "lagun artean"

KOMIKIA




Alazne Urkiola
Bigarren taldea 2. saria

Balentiaga 18

ARRATZALDE PASA, "LAGUN ARTEAN"

Iker egarriak dago, eta Imanolek ur botila bat du eskutian...



ALAZ

Bizia lurretik kanpo

KOMIKIA





Julen Ibarretxe
Hirugarren taldea 1. saria

Balentiaga 18

BIZIA LURRETIK KANPO









4

Rocket Man

Zer gertatzen
ari da?

KOMIKIA



Abinet Casquero
Hirugarren taldea 2. saria

Balentiaga 18

MIKEL LASUNECIA ELKARTZEN DA ETA EGARRE SOTZIALAKI
BUDATU HIZ EGITEN #ASTEN BIRA...



MUSIKL BELEG GELAN DABOGLA PENTAKOR GEBATZEN DA...



MIKE
NINTEN
DOGS
STEVE
WELSH
HONOLULU
MIKE



...DU DUT HABT BAT 52845719 7193411-...

